

HIDROELECTRICA HARANA KONTRASTA, S.A.REN EROSTEN ETA KONTRATATZEKO BALDINTZA OROKORRAK

I. XEDEA

HIDROELECTRICA HARANA KONTRASTA, S.A.ren (aurrerantzean HARANA-KONTRASTA) Eroste eta Kontratatzeko Baldintza Orokor hauen helburua da HARANA-KONTRASTAren eta kontratisten arteko harreman juridikoa eta kontratuzkoa arautzea; betiere, HARANA-KONTRASTA egingo dituen obra, zerbitzu eta hornidurei lotutako erosketak eta kontratuen kasuetan.

II. APLIKAZIO EREMUA

HARANA-KONTRASTAren Eroste eta Kontratatzeko Baldintza Orokor hauek HARANA-KONTRASTA hirugarrenekin egingo dituen erosketak eta kontratu guztietan aplikatuko dira, eta haien balioa honako kantitate hauek baino txikiagoa badira:

- a. Obrak: 40.000 € (BEZik gabe).
- b. Zerbitzuak eta hornidurak: 15.000 € (BEZik gabe).

III. DEFINIZIOAK

Eroste eta Kontratatzeko Baldintza Orokorra: Hirugarrenek HARANA-KONTRASTAri zerbitzuak ematea, obrak egitea eta hornidurak eskura jartzea arautzen dituzten baldintza juridikoen eta kontratuzkoen multzoa.

Agindu-eskaria/eskaria/kontratua: HARANA-KONTRASTA aurkezten duen dokumentua eta kontratistak sinatzen eta onartzen duena, zeinaren bidez obra, zerbitzu eta horniduren kontratazioa formalizatzen den.

Baldintza bereziak: Dokumentu bakarren multzoa, edo kontratuzko dokumentazioari lotutako testu informatiboak, kontratu nahi diren obra, zerbitzu eta horniduren inguruko baldintza bereziak eta zehaztapenak jasotzen direnak. Baldintza berezi horiek Eroste eta Kontratatzeko Baldintza Orokor hauek ordeztzen edo osatzen dituzte.

Kontratuzko dokumentazioa: Eskari/kontratua osatzen duten dokumentuan multzoa. Kontratuzko dokumentaziotzat haxe hartuko da: eskari/kontratua bera, eranskin guztiak eta horiek aldatzeko edo garatzeko beste edozein dokumentu; betiere, eskari/kontratuan hitzartutakoaren arabera prestatzen badira.

Kontratista: Pertsona juridikoa, indarrean dagoen legeriaren arabera, Sektore Publikoarekin kontratatze gaitasuna eta baldintzak betetz, HARANA-KONTRASTA kontratatzen dituen obra, zerbitzu eta horniduren esleipenduna dena.

Obrak: Obratzen hauek joko dira: Sektore Publikoko Kontratuek diharduen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 13. artikuluan adieraziak.

Zerbitzuak: Zerbitzuetan hauek joko dira: Sektore Publikoko Kontratuek diharduen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 17. artikuluan adieraziak.

Hornidurak: Horniduratzat hauexek joko dira: Sektore Publikoko Kontratuez diharduen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 16. artikuluan adieraziak.

IV. ARAUBIDE JURIDIKOA

Baldintza orokor hauen arabera, HARANA-KONTRASTAK hirugarrenekin egingo dituen obra, zerbitzu eta hornidurari lotutako erosketak eta kontratazioak honako dokumentu edo agiri hauek (lehentasunezko hurrenkeran) arautuko dituzte:

- a. Baldintza bereziak eta kontratuzko izaera duten agiriak.
- b. Erosteko eta Kontratatzeko Baldintza Orokor hauek.
- c. Kontratatistak aurkezten duen eskaintza teknikoa/ekonomikoa (aurrerantzean "eskaintza").
- d. Sektore Publikoaren Kontratuez diharduen azaroaren 8ko 9/2017 Legea ("SPKL").
- e. Administrazio Publikoen Kontratuaren Legearen Araubide Orokorra onartzen duena ("HAKLEO"), baldin eta SPKLen xedatutakoaren kontra ez bada.
- f. Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren kontratazio araudiez diharduen uztailaren 27ko 116/2016 Dekretua, baldin eta SPKLen xedatutakoaren kontra ez bada.
- g. Maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretua, Sektore Publikoaren Kontratuez diharduen urriaren 30eko 30/2007 Legea partzialki garatzen duena.
- h. Kontratazioa arautzen duen beste edozein xedapen, eta aplikagarriak izango direnak, bai Estatu mailan bai Euskal Autonomia Erkidegoko esparruan.
- i. Zuzenbide pribatuaren arauak aplikagarriak izango dira kontratuaren ondorio eta amaierari doazkien gaiak ebazteko.

Halaber, Baldintza Orokor hauen arabera, HARANA-KONTRASTAK egingo dituen erosketak eta kontratazioak kontratu pribatutzat hartuko dira.

V. KONTRATISTA AUKERATZEA

Esleipenari ekin aurretik, HARANA-KONTRASTAK eskubidea izango du kontratua bertan behera uzteko, espedientean behar bezala justifikatuta, edo hautatzeko prozedurari ez ekitea, kontratua prestatzeko araudietan edota esleipena bideratzeko prozeduran hauste edo akatsen bat gertatuz gero.

VI. KONTU FISKALEI, INGURUMENARI, EMAKUME ETA GIZONEN ARTEKO BERTINTASUNARI, ENPLEGUA BABESTEARI, LANEKO BALDINTZEI, INTSERZIOARI, EZGAITASUNA DUTEN PERTSONEI BEGIRA, EZGAITASUNA DUTEN PERTSONA KOPURU EDO EHUNEKO JAKIN BAT KONTRATU BEHARRA ETA LANEKO ARRISKUAK PREBENITZEARI BURUZKO INFORMAZIOA, ETA DATUEN BABESA

Jarraian aipatzen diren erakundeetan informazioa jaso daiteke bete beharreko eskakizunez eta indarrean dagoen legeriaz honako gai hauen inguruan:

- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna: Erakunde Autonomiaduna EMAKUNDE-Emakumearen Euskal Erakundea.
- Zerga-sistema: Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa Lurralde Historikoetako eta Nafarroako Foru Erkidegoko foru ogasunak eta Agencia Estatal de Administración Tributaria.
- Ingurumenaren babesa: IHOBE Sozietate Publikoa.

- Enpleguaren babesa, laneko baldintzak, laneko arriskuen prebentzioa: Lan eta Justizia Saileko Lan eta Gizarte Segurantzaren Zuzendaritza eta OSALAN, Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea.
- Ezgaitasuna duten pertsonen lanean txertatzea edo gizarteratzea eta ezgaitasuna duten pertsonen kopuru edo ehuneko jakin bat kontratatu beharra: Erakunde Autonomiaduna LANBIDE.
- Datuen babesa: EAEko Datuak Babesteko Euskal Agentzia.

VII. EROSTEKO ETA KONTRATATZEKO KONTRATUZKO BALDINTZAK

1. **ESKARI/KONTRATUAREN PREZIOA. FAKTURAZIOA, ORDAINKETA ETA PREZIOEN BERRIKUSPENA**

1.1 **Eskari/kontratuaren prezioa**

Eskari/kontratuaren prezioa esleipenaren ondorioz aterako dena izango da, eta diru-sail independente gisa sartuko du BEZa.

Eskari/kontratuaren prezioan gainerako zergak, tasak eta era guztietako kanon aplikagarriak sartuta daudela ulertuko da, bai eta baldintza berezietan eta kontratistak aurkeztutako eskaintzan azaltzen diren betebeharrak betetzeak kontratistari ekarri ahal dizkion gastu guztiak ere (gastu orokorrak, finantzarioak, onurak, aseguruak, garraioa eta joan-etorriak, berarentzat lan egiten duen pertsonal teknikoaren ordainsariak, bisak, etab.).

Azken batean, kontratistak ordainduko ditu gainerako gastuak, kontratuan azaltzen diren lanak behar bezala egiteko, eta, beraz, HARANA-KONTRASTA ez ditu ordainduko, baldintza berezietan eta kontratistak aurkezten duen eskaintzaren arabera.

1.2 **Fakturazioa eta prezioaren ordainketa**

Kontratistak HARANA-KONTRASTAren adostasunarekin burututako eta emandako lanengatik ordainsaria jasotzeko eskubidea izango du, lanei dagozkien fakturak aurkeztuta, baita onartua ahal izateko behar den dokumentazio guztia erantsita ere.

Prezioaren ordainketak egiteko modua baldintza berezietan zehaztuko da, behin lan guztiak egindakoan eta horiek HARANA-KONTRASTAren oniritzia jaso ondoren. Nolanahi ere, ez da ordainketarik egingo lanak egin aurretik eta HARANA-KONTRASTAren adostasuna jaso ezean.

Prezioaren ordainketa 30 egun naturaleko epean egingo da, esleipendunak dagokion faktura egin eta aurkezten denetik kontatzen hasita, betiere HARANA-KONTRASTAren oniritziarekin.

HARANA-KONTRASTAren berariazko baimena jaso ezik, kontratistak ez du egindako lanen hobekuntzak edo horniduraren desbideratzeak kobratzeko eskubiderik.

Dokumentu honetan jasotzen den bezala, HARANA-KONTRASTA kontratistari ezarri ahal dizkion zigor ekonomikoak prezioetik kentzeko eskubidea du.

1.3 **Prezioen berrikuspena**

Baldintza berezietan ezarriko dena beteko da.

2. GAUZATZEKO EPEA

Gauzatze epea eta, kontratua betetzeari begira, ezarritako epeak betetzeko behar diren aldiaren aldi epeak baldintza berezietan, kontratatzailearen eskaintzan edo HARANA-KONTRASTA lan programan onartuko dituenak izango dira.

Lanak egiteko epeak laburtzen edo jardueren ordenamendurako zatikako epeak ezarri gero, ezinbestean bete beharko lirateke, horrela eskaintzen edo ezartzen badira, hurrenez hurren.

3. ESKARI/KONTRATUAREN ONARPENA ETA IRISMENA

Ondorio guztietarako, baimendutako ordezkariak sinatzen duten unetik aurrera sartuko da indarrean eskari/kontratua, eta, beraz, hari lotutako dokumentu eta eranskin guztien edukia onartzea dakar.

Sinaduraren bidez, kontratistak honako hau bermatzen du:

1. Jarduteko ahalmen erabatekoa du eta kasuan-kasuan eskatuko den enpresa edo lanbide mailan gaituta dago, kontratuaren xedeari lotutako lanak gauzatzeari begira. Eskari/kontratuaren xedea aurrera eramateko gaitasun teknikoa, ekonomikoa eta operatiboa.
2. Auzibide judizialean edo administratiboan ez izatea, kontratuarekin dituen konpromisoak eta legezko eskakizunak betetzea oztopa edo eragotzi ditzakeenak, ezta SPKLen 71. artikuluan araututako debeku, ezgaitasun edo bateraezintasuneko kausarik izatea ere; betiere, kontratazioa egiteari begira.
3. Eskari/kontratuaren xedea aurrera eramateko gaitasun ekonomikoa eta finantzariora, teknikoa, profesionala eta operatiboa edukitzea.
4. Kontratuaren helburua erabat betetzeari begira, giza baliabide eta baliabide tekniko guztiak dituela eta erabiltzeko prest dagoela.
5. Kontratua sinatzen duen unetik bertatik, bere osotasunean onartzen duela eta adierazten du ezagutzen duela non eta nola garatu behar duen, baita kontratuaren inguruko informazio guztia jaso duela ere.

Eskari/kontratua, HARANA-KONTRASTA sinatu eta gero, kontratistari bidaliko zaio onar dezan. Gero, baimendutako ordezkariak sinatuko duen kopia itzuli beharko du hamabost (15) egun naturaleko epean, hura jasotzen den egunetik kontatzen hasita.

Kontratistak egin beharko duen lanaren irismena haxe izango da zehazki: eskari/kontratuan, baldintza berezietan, eskaintza eta zehaztapenetan, eta horri lotuta edo erantsitako dokumentuak, ezarriko direnak, eta aplikagarria izan dakizkiokeen legeria eta araubide guztiak bete beharko ditu.

Kontratistak aldi baterako enpresa-elkartea edo beste era bateko elkarte eratzten badu, haien partaideen nortasun juridikoa ezberdina izanez gero, eskari/kontratutik eratorri ahal den erantzukizuna solidarioki bereganatuko dute enpresa-elkarte edo beste elkarte batekin zerkusia duten pertsona guztiek edo haiei lotutako enpresek.

4. HARANA-KONTRASTA-REN BETEBEHARRAK

HARANA-KONTRASTAren betebeharrak hauexek izango dira:

- Kontratatu diren ondasun, obra edota zerbitzuei dagokien ordainketa, kontratuzko dokumentazioan ezarriko diren baldintza eta prezioen arabera.
- Ordezkar bat hautatzea, 15. klausulan aurreikusten denari jarraiki; kontratistaren aurrean, eskari/kontratua garatzeaz eta gauzatzeaz arduratuko dena.
- Kontratatu den lanaren irismena aurrera eramateko, kontratistari behar den dokumentazio guztia ematea.
- Enpresa jarduerak koordinatzeko prozedurak (171/2004 Errege Dekretua) eskatzen duen dokumentazioa helaraztea kontratistari, horniduraren irismena HARANA-KONTRASTAren instalazioetan egiten bada eta lantoki berean bi enpresa edo gehiago aritzen badira.

5. KONTRATUA GAUZATZEA

- a) Kontratua baldintza berezietan, Erosteko eta Kontratatzeko Baldintza Orokor hauetan eta kontratistak aurkeztuko duen eskaintzan ezarritakoari atxikita beteko da, eta HARANA-KONTRASTAk kontratistari edo ordezkar emango dion interpretazio jarraibideen arabera.
- b) Kontratua kontratistaren arrisku eta zoriaz beteko da, eta kontratuzko dokumentazioan ezarriko denari jarraiki.
- c) Kontratistak bere gain hartuko du garatutako lanen eta burututako eginkizun eta zerbitzuen kalitate teknikoaren ardura, baita HARANA-KONTRASTArentzat edo hirugarrenentzat kontratua betetzean gerta daitezkeen hutsegite, akats, metodo desegoki edo ondorio okerrekin eragindako ondorioen erantzukizuna ere.
- d) Era berean, kontratazioaren xedea duten lanak era honetan egingo ditu kontratistak:
 - i- Behar bezalako ardurarekin eta industrian eta merkataritzan ohikoak diren praktiken arabera.
 - ii- Eskariari aplikagarria izango zaizkion eta indarrean egongo diren araudi guztiak era egokian betetzen, eta bereziki, inolako mugarik gabe, ingurumenarekin zerikusia dutenak.
 - iii- Eskarian egongo diren sistemei edo produktuei dagokienez, kalitatea kontrolatzeko erakundeekin ezarritako kalitate, diseinu eta jarraibide betekizunak aintzat hartzen.
- e) Eskaria behar bezala betetzeko, kontratistak konpromisoa hartzen du informazio osagarria eta laguntza teknikoa emateko (dokumentuak eta mota guztietako informazioa).
- f) Lanak egiten diren bitartean, kontratuaren aplikazio zuzenaren eta istripu edo kalteen, pertsonen, materialei eta hirugarrenei gerta dakizkienak, ardura kontratistarena izango da.

- g) Kontratua indarrean dagoenean eta kontratua amaitu ondoren, kontratista derrigortuta dago isilpeka gordetzera kontratuaren helburuekin zerikusia duten datu eta aurrekariak, bereziki jakinak eta agerikoak ez direnak, baita kontratua bete ahala ezagut ditzakeenak ere.
- h) Ez zaio ordainduko kontratistari kontratuzko dokumentazioan zehaztuta ez dagoen ezein lan edo kontratazio-organoak edo kontratuaren arduradunak aldeztu aurretik baimendu ez duen ezein lan.
- i) Obra- eta hornidura-kontratuen kasuan amaitutakoan, kontratuaren xedea diren lanen harrera formal ekitaldia egingo da, eta handik aurrera hasiko da kontaktzen, kasuan-kasuan, baldintza berezietan eta/edo Eskaintzan aurreikusitako bermearen epea.

6. OBRA-KONTRATUAK: SEGURTASUNA ETA OSASUNA. ZUINKATZE AKTA

Obra-kontratuei dagokienez:

- a) Eskaintza sinatzen den egunetik, hamar (10) egun balioduneko gehieneko epean, baldintza hauetako 11.1 klausulan azaltzen den dokumentazio guztia eman beharko dio HARANA-KONTRASTAri kontratistak, segurtasun eta osasun alorreko koordinatzaileak berrikusi eta egiaztatzeko xedez. Aipatutako klausulan adierazten diren lan arriskuak prebenitzeko betebeharrak era egokian betetzen direla ziurtatzeko.

Segurtasun eta osasun alorreko koordinatzaileak informazioa emango du onarpenaren inguruan, eta erabat onartu ezean, zuzendu beharreko alderdiak edo aurkeztu beharreko dokumentazioa adieraziko ditu. Horiek zuzentzeko edo aurkezteko arrazoizko epe bat ezarriko da, gehienez ere bost (5) egun balioduneko epean.

Kontratistaren aldetik, adierazitako epeak ez betetzeagatik obrak hasita ezinezkoa izango balitz, kontratistak ezin izango du epearen luzapena eskatu arrazoi horregatik. Horren ondorioz, ez betetzeari dagokion zigorra ezarriko zaio, baldintza hauetako 9. klausulan aurreikusten denari jarraiki.

Nolanahi ere, segurtasun eta osasun alorreko koordinatzaileak segurtasun-plana onartu eta ziurtatu baino lehen, ezin izango da inola ere obra hasi, lan arriskuak prebenitzeko arauak diotena betez.

- b) Kontratu gauzatzen hasiko da zuinkatze akta sinatzen den unetik aurrera. Zuinkatzearen egiaztapena hamabost (15) egun balioduneko gehieneko epean egingo da, eskaria formalizatzen den egunetik kontaktzen hasita. Zuinkatzearen egiaztapenaren eguna eta ordua aldeztu aurretik, nahiko denborarekin, jakinaraziko zaio kontratistari.

Zuinkatzearen egiaztapen aktan adostasuna edo desadostasuna jasoko da, proiektuari lotutako kontratuaren dokumentuei dagokienez, kontratua betetzeko funtsezkoak diren atalak bereziki eta berariaz adieraziz.

Ezin izango da obra hasi, zuinkatzearen egiaztapen akta egin arte. Aktan garrantzitsuak eta pisuzko arrazoiak agertuz gero, hasiera bertan behera geratuko da edo behin betiko baztertuko da.

7. KONTRATUAREN ALDAKETA

Behin kontratua egokituta edo hobetuta, HARANA-KONTRASTAk kontratua alda dezake soilik interes publikoari lotutako arrazoiak tartean badira, baldintza berezietan eta SPKLen 205. artikuluan xedatutakoa aintzat haturik. Interes publikoaren arrazoitzat hauexek hartuko dira: aurrekontu egonkortasuna helburu dutenak eta dagokion aurrekontu ekitaldiaren barruan gauzatuak.

Nolanahi ere, aldaketarik balego, aldaketa SPKLen 153. artikuluan xedatutakoari jarraiki egingo litzateke eta SPKLen 63. eta 207. artikuluetan ezarritakoaren arabera argitaratuko litzateke.

Kontratatik derrigorrean onartu edo bete beharko ditu klausula honen arabera egin litezkeen aldaketak

8. BERMEAREN EPEA

- a) Kontratua amaitutakoan, HARANA-KONTRASTAk kontratuaren helburua izandako lanen hartze formala egingo du. Une horretatik aurrera, bermearen epea sartuko da indarrean, baldintza berezietan eta/edo Eskaintzan hala aurreikusten baldin bada.
- b) Bermearen indarraldia baldintza berezietan eta/edo Eskaintzan ezarriko da. Baldintza berezietan irizpiderik ezarri ezean, arau orokor gisa, bermearen epea 24 hilabetekoa izango da, behin betiko hartzea egiten den egunetik kontatzen hasita.
- c) Berme-aldian, kontratistaren kontura izango dira kontratatutako kalitateko baldintzak bete ez direlako egin beharreko materialen ordezkapen edo konponketa guztiak.
- d) Bermearen epea edo aldia eten egingo da ordezkapenak edo konponketak irauten duen bitartean; era berean, berme hori bermatu egin beharko da hori amaitzen denetik hasita, ezarritako jatorrizko bermeari dagokion epe bererako.
- e) Kontratatik bermeak ez betetzeak HARANA-KONTRASTAk ordaindu gabe dituen ordainketak atxikitzea, abalak gauzatzea eta kontratua indargabetzea ekarri ahalko du; era berean, kontratatik eragindako kalte-galeren truke dagokion kalte-ordaina ordaindu beharko du.
- f) Berme-epea amaitzean, HARANA-KONTRASTAk kontratistari obrako/hornidurako/zerbitzuko egikaritzean edo eskaintzeko prozesuan eragozpenik, akatsik edo hutsegiterik dagoela jakinarazi gabe, kontratua eta kontratistaren erantzukizuna iraungi egingo dira, ezkutuan dauden akatsen edo hutsegiteen kasuan izan ezik. Azken kasu horretan, kontratista erantzulea izango da, nahiz eta bermearen epea igarota izan.

9. EPEAK ETA BERANDUTZEAGATIKO ZIGORRAK

- a) Kontratista derrigortuta dago kontratua baldintza berezietan, Eskaintzan eta hitzartuko den Lan Plangintzan finkatuko diren epeetan, guztizkoak eta zatikakoak, gauzatzeraz.
- b) Kontratista edozein epean berandutu egin dela jotzeko, ez da beharrezkoa izango HARANA-KONTRASTAK alde zuzenetik ohartarazpenik egitea. Atzerapen horiei dagozkien zigorrak HARANA-KONTRASTAK ezarriko ditu automatikoki.
- c) Azken epea amaituta edota bitarteko eperen bat igarota, kontratista berandutu egin bada berari egotz dakizkiokeen arrazoiak direla eta, EEEK eguneroko zigorra ezarri ahal dio kontratatzaileari, kontratuaren prezioaren 1.000 euro bakoitzagatik 3 euroko proportzioan, BEZ kanpo geratzen dena.

Zigorren zenbatekoak ez du kanpo uzten HARANA-KONTRASTAK kontratistaren berandutzeagatik sortutako kalte-galerak direla kausa eska dezakeen kalte-ordaina, ez eta HARANA-KONTRASTAK kontratua suntsiarazteko duen eskubidea ere.

- d) Era honetako zigorrak ezartzeko prozeduran kontratistari alegazioak egiteko aukera eman beharko zaio derrigorrean.

10. KONTRATISTAK KONTRATUA AKATSEZ BETETZEA EDO ZATIKA BETE GABE UZTEA

HARANA-KONTRASTAK zehaztuko du kontratistak egindako lana gauzatze eta betetze-aldiari begira ezarritako preskripzioekin bat datorren ala ez, baldintza berezietan eta aurkeztutako eskaintzan ezarritakoari jarraiki, eta behar izatekotan, kontratatutako zereginak bete ditzala edota harrera aldiaren igarritako akatsak konpon ditzala eskatuko dio, hori egiteko epea hamar (10) egun baliodun baino gehiago ez da izango obra kontratueterako, eta bost (5) egun baliodunekoa zerbitzu eta hornidura kontratueterako.

Egindako lanak ez badatoz bat kontratatutako zereginekin, kontratistari egotz dakizkiokeen akatsak edo hutsegiteak medio, HARANA-KONTRASTAK lan horiek errefusatu eta ordainketa egitetik salbuetsita geratzeko aukera izango du, eta horrekin batera, kontratua bera indargabetu ahal izango du, eta kontratistari, zigor gisa, adostutako azken prezioaren %20 eskatu ahal dio.

Zigor horien barruan ez daude, kalte-ordain moduan, HARANA-KONTRASTAK jasotzeko eskubidea izan dezakeena, kontratistak epeak eta beste ez betetzeagatik sor daitezkeen kalteen ondorioz.

11. KONTRATISTAREN BETEBEHARRAK

11.1 Lan arriskuen prebentzioa

Kontratistak bete eta bere ardurapeko langileei betearaziko dizkie lan legeriak arriskuen inguruan xedatutako arau guztiak; baita aplikagarria zaien Lan Ituna, eta bereziki, Lan Arriskuen Prebentzioaz diharduen azaroaren 8ko 31/1995 Legeak dioena bete eta betearaziko du, baita hura geratzen duen araudia ere, hala nola Lan Arriskuen Prebentzioaz diharduen azaroaren 8ko 31/1995 Legearen 24. artikulua diona bereziki eta urtarrilaren 30eko 171/2004 Errege Dekretuak xedatutakoa

Obra kontratuatarako, haien ezaugarriek hala eskatzen dutenean, edo legeak aurreikusten badu, kontratistak honako dokumentazio hau aurkeztu beharko du, edo segurtasun arduradunak beharrezkotzat hartzen dituenak, berrikusi eta onartzeko, hala dagokionean:

- Obran arituko diren langileen TC1 eta TC2 agiriak.
- Obran arituko diren langileen zerrenda (izena, NAN eta arituko den lanpostua).
- Obrari lotutako osasun eta segurtasun plana, haren burutzapen eta kostua kontratistaren edo esleipendunaren kontura joango dira.
- Prebentzio alorreko erakunde batekin egindako kontratuaren fotokopia, edo bestela, enpresaren antolakuntza prebentiboaren agiria.
- Obran arituko diren langile guztiek euren zereginen inguruko arriskuei buruzko informazioa jaso izanaren agiria.
- Lan Zentroaren irekiera.
- Enpresa Akreditatuen Erregistroan izena emanda dagoela egiaztatzen duen agiria.
- Bisita liburua.
- Azpikontratazio liburua.
- Istripuen mutua.
- EPlen jaso izanaren agiria.
- Obrarako zuzendutako baliabide prebentiboaren izena.
- Medikuen egiaztariak, langile bakoitzak bere lanpostuan jarduteko ezintasunik ez duena azalduz.
- Kontratutako lanen jarduera prebentiboaren planifikazioa eta arriskuen ebaluazioa (osasun eta segurtasun planean zehaztu ez badira).
- CE marka edo egokitutako dokumentua izango duen makineriaren zerrenda.
- Obran makineria erabiltzeko baimena izango duten pertsonen izenak.

11.2 Enpresa kontratisten gutxieneko betebeharrak laboral eta sozialak

a) Kontratistak, esleitu zaion lana egiteko, bete beharko du indarrean dagoen gai laboralei buruzko araudia eta Gizarte Segurantzaren inguruan, baita lan segurtasun eta osasunari lotutako legeak ere, kontratazio publikoan zenbait klausula sozial sartu beharrekoaz diharduen apirilaren 7ko 3/2016 Legean xedatutakoarekin bat etorritik (2016ko apirilaren 15eko EHAA, 71 zenb.). Beraz, kontratistak, esleitu zaion lana egiteko kontratatzen dituen langileei dagokienez, indarrean dagoen gai laboralei buruzko araudia eta Gizarte Segurantzari, ezinduen integrazio laboralarik eta lan-arriskuen prebentzioari buruzko araudiak bete behar ditu. Gizarte-formazioarekin zerikusia duten azken araudi horien kasuan, azpikontratuak –halakorik izanez gero– bere langileei dagokienez, indarrean dagoen gai laboralei buruzko araudia beteko duela ziurtatu behar du kontratistak.

b) Halaber, kontratistak konpromisoa hartzen du lanak ahalik eta ondoen egiteko, azpikontratatuak dituen enpresek bezalaxe, lana baldintza duinetan egiten dela bermatzera, bai bere enpresan, bai hark azpikontratutako enpresetan (halakorik izanez gero). Horrez gain, langileei dagokien sektoreko hitzarmenak beteko dira. HARANA-KONTRASTAK hala eskatzen badiu, kontratistak dokumentatuta egon daitezkeen betebeharrak betetzen direla egiaztatzen duten dokumentu guztiak aurkeztuko dizkio.

c) Kontratistak, kontratuaren lanek irauten duten bitartean, langileei dagozkien sektoreko hitzarmenen arabera soldata ordaindu beharko die, langile bakoitzaren kategoria profesionala kontuan hartuta, eta ez da inola ere izango dagokiona baino txikiago soldata hori.

d) Kontratatistak bere menpeko langile guztiei babesteko ekipo homologatuak eman behar dizkie, kontratuan aurreikusten diren lanen segurtasunak edo arriskuak hala eskatzen badu, aplikagarria izan dakioken lan arriskuak prebenitzeko planaren arabera. Horrekin batera, langile horiek ekipoak behar bezala erabiltzeko prestakuntza jaso dutela bermatu behar du.

e) Kontratista behartuta dago lana baldintza duinetan egiten dela bermatzera, bai bere enpresan, bai hark azpikontratutako enpresetan (halakorik izanez gero). Horrez gain, langileei dagokien sektoreko hitzarmenak beteko dira, batez ere pertsonalaren subrogazioari dagokionez.

f) Kontratazio organoak edo HARANA-KONTRASTAk hala eskatzen badio, kontratatistak dokumentatuta egon daitezkeen betebeharrak betetzen direla egiaztatzen duten dokumentu guztiak aurkeztuko dizkio.

g) Lanei atxikitako beharginek kontratistaren menpe jardungo dute, eta honek enpresariari dagozkion eskubide eta betebeharrak izango ditu beharginen gainean.

h) Kontratua hau sinatzeagatik HARANA-KONTRASTAk ez du inolako betebeharrak eta erantzukizunik izango gizarte eta lan betebeharren inguruan, legez kontratatistak bere menpeko langileekin dituenak, alegia. Nolanahi ere, kontratatistak konpromisoa hartzen du HARANA-KONTRASTAri erreklamaziorik ez eskatzeko, haren langileek edo beste batek aipatutako betebeharrak izan ditzaketan arazoaren aurrean.

i) Orokorrean, kontratatistak aurre egin beharko die enplegatzaile gisa dagozkion betebeharrak, bai eta kontratatistak edo honen azpikontratatistek langileekin dituzten lan-harremanak edo bestelakoak erregulatu eta garatzen dituzten arauak betetzetik datozkienei ere, eta HARANA-KONTRASTAri ez zaizkio leporatuko horietako edozein ez betetzeak sor ditzakeen isun, zigor edo bestelako erantzukizunak. Edozein kasutan, kontratatistak oso-osorik ordainduko dio HARANA-KONTRASTAri.

Kontratazio honetako betebeharrak ez betetzeak zehaztuta daukan kalte-ordaina, nahiz eta ebazpen judizial edo administratiboak ezarritakoa izan

j) Kontratua iraungita, ezin izango dira inola ere kontratazio organoko langile bihurtu kontratuan zehaztutako zereginetan jardun duten beharginak.

k) Kontratistari egokituko zaizkio, eta bere kontura joango dira, kontratua betearazteak ekarri ahal dizkion kostu guztiak.

l) HARANA-KONTRASTAk eskatuz gero, aurkeztu beharreko dokumentazioa aurkeztu ezean edo berandu aurkeztea justifikatu gabe, kontratuak eskatzen duen baldintza bat ez betetzea da, edo kontratazio publikoan zenbait klausula sozial sartu beharrekoaz diharduen apirilaren 7ko 3/2016 Legean xedatutakoarekin bat ez etortzea da (2016ko apirilaren 15eko EHAA, 71 zenb.), eta, beraz, kontratu-betebeharrak ez gauzatzea ekarriko du. Ondorioz, kontratazio organoak pleru honetan adierazten den akatsengatiko zigorraren bat ezartzeko eskubidea izango du, eta enpresaburua kontratatzeke debekua abiarazteko prozedurari ekingo dio, eta kasuan kasu, kontratua bertan behar utz dezake, dokumentu honetan ezarritakoaren arabera.

11.3 Ingurumenari buruzko betebeharrak

Kontratistak eta bere ardurapeko azpikontratek egingo dituzten lan guztietan saihestuko dituzte kalte edo eragin kaltegarria ingurumenean, animalietan eta landaretan, eta egin beharreko lanen ondorioz eragingo diren gorabehera edo kalteak ekiditeko edo murrizteko erabaki edo neurri guztiak hartuko ditu.

Ingurumen alorrean agintari eskudunek emandako eta ezarritako lege, araudi eta gomendio guztien arabera egingo ditu lan guztiak kontratistak. Horretaz gain, HARANA-KONTRASTAK eman ditzakeen arau guztiak ere beteko ditu, eta bete ezean, kontratista bera izango da arduradun bakarra.

Kontratistak konpromisoa hartzen du bere langileei ingurumen alorreko informazioa emateko, HARANA-KONTRASTAekin kontratua sinatzetik eratorriko diren ardurei dagokienez.

11.4 Hirugarrenen baimenak

HARANA-KONTRASTAK bere kabuz egin ditzakeen kontratuzko eragiketak eta kudeaketan lanak alde batera utzita, kontratistak bere lana egiteko beharrezkoak diren baimen eta lizentziak lortu beharko ditu, haiek norbanakoei, elkarteei, enpresei eta erakundeei eskatuz. Baimen horiek lortzeko zerbait ordaindu beharko balitz, diru-kopuru hori ere kontratistak ordaindu beharko du.

12. ASEGURUAK

(i) Zerbitzu eta hornidura kontratueterako, kontratistak honako aseguru hauek eduki behar ditu:

Erantzukizun zibil profesionalaren aseguru. Aseguru honek HARANA-KONTRASTArentzat diharduten profesionalak (abokatu, ingeniari, ingeniari teknikoek...) beste bati eragin ahal dizkioten kalte edo zauriak, pertsonalak edo materialak, estaltzeko bermea eman behar du.

Aseguru hau ospe handia duen aseguru enpresa batekin sinatu behar da, eta gutxieneko kalte-ordaina ez da 300.000 euro baino txikiagoa izango.

(ii) Obra kontratueterako, eta baldintza berezietan hala jasotzen bada zerbitzu eta hornidura kontratueterako, kontratistak honako aseguru hauek eduki behar ditu:

Erantzukizun zibil profesionalaren aseguru. Zentzu zabalean kontratatua, erantzukizun zibil profesionalaren aseguru honek diharduten profesionalak beste bati eragin ahal dizkioten kalte edo zauriak, pertsonalak edo materialak, estaltzeko bermea eman behar du. Horrekin batera, aseguratuak bere zereginak egitean, edo haren menpeko egon daitekeen eta erantzukizuna duen besteren batek izan dezaketen akats profesionalen edo arduragabekeriaren ondorioz, ondareari eragin ahal zaizkion kalteak ere kontuan hartuko ditu aseguru horrek.

Aipatutako aseguruak, besteak beste, erantzukizun zibil orokorra, patronala (lan istripuak), produktua eta lanen ondorengokoena bildu beharko ditu eta horren gutxieneko estaldura 300.000 eurokoa izango da ezbehar bakoitzerako.

Erantzukizun zibil patronalari dagokionez, gutxieneko estaldura 150.000 eurokoa izango da kasu bakoitzeko. Lanak direla eta, esleipendunak salgaiak edo ekipoak garraiatu behar izanez gero, garraioari lotutako erantzukizun zibilaren estaldura kontuan hartuko da.

Ibilgailuen aseguruak. Beharrezko erantzukizun zibila eta borondatezkoak izango dira aseguruak, haren jabetzako edo azpikontratisten ibilgailuek, makinek eta, oro har, ekipoek hirugarrenei eragin ahal dieten kalteen ondorioz, erantzukizun zibileko estaldura izango dute. Hori guztia, tresna mugikor guztiei aplikatuko zaie (ezkorgak edo orgak eta halakoak).

Pertsonen aseguruak. Lanetara esleitutako langile eta azpikontratatu guztien gaixotasunagatiko eta laneko istripuengatiko aseguruak, aplikagarria den legeriak xedatutakoa betez, eta langileen hitzarmenetan ezarritakoa kontuan hartuz. Legez eskatzen diren aseguru guztiak ere barne egongo dira.

Beharrezkoak diren beste aseguru batzuk, edo/eta aplikagarria den legeriak hala eskatuta.

- a) Kontratuari lotutako lanei ekin aurretik, kontratistak egindako aseguruaren kopia edo egiaztagiria emango dio HARANA-KONTRASTAri, eta horien baldintzei eta indarraldiari lotutako aldaketen berri eman beharko du. Baldintza horiek aldatuko lirateke, behar izanez gero, HARANA-KONTRASTAren iritziz.
- b) Kontratistak dokumentu honetan aipatzen diren aseguruak kontratatzen ez baditu, edo aseguruak indarrean daudela egiaztatzen dituzten agiriak hogeita hamar (30) egun naturaleko epean aurkeztu ezean, HARANA-KONTRASTAK aseguru horiek egiaztatzeko agiriak aurkezteko eskatzen duen egunetik kontatzen hasita, ordainduta daudela argi nabarmenduz, HARANA-KONTRASTAK eskubidea izango du antzeko estaldura izango duten aseguruak kontratatzeko, eta horien kostuak kontratatzailearen kontura joango dira eta, hala dagokionean, HARANA-KONTRASTAK kontratistari egin beharreko ordainketatik kenduko dira.
- c) Aseguruaren inguruan kontratistari begira ezarritako eskakizun guztiak azpikontrastei ere eragingo dizkiete, betiere modu egokian eta arriskuaren proportzionaltasunaren arabera, eta alor honetan hutsune edo gabeziaren bat izanez gero, HARANA-KONTRASTAri eman beharko dizkio azalpenak.
- d) Aipatutako aseguru edo polizetan aldaketarik izanez gero, bertan behera edo berritzeak egiten badira, adibidez, kontratistak HARANA-KONTRASTAri jakinaraziko dio. Era berean, HARANA-KONTRASTAK hala eskatzen baldin badio, kontratistak aseguruaren kontratuen kopiak eta ordainduta daudela egiaztatzen dituzten dokumentuak erakutsiko dizkio. Kontratistak egiaztatzen edo bidaltzen ez baditu eskatutakoa, bere aldetik kontratua ez betetzea lekarke.
- e) Kontratistaren kargura izango diren arrisku, betebeharrak eta erantzukizunak ez dira mugatzen klausula honetan aipatzen diren aseguruaren kontrataziora. Hori horrela, hartutako arriskuetatik erator daitezkeen betebeharrak eta erantzukizunak ez dira soil-soilik sinatutako aseguruaren zenbatekoetara mugatuko, HARANA-KONTRASTAren edo besteren kaltean gauzak gertatuz gero.
- f) Atal honetan aipatutako aseguru guztien kostua kontratistak ordaindu beharko du.

13. EGINDAKO LANEN JABETZA. DATU PERTSONALEN ERABILERA. KONFIDENTZIALTASUNA

13.1 Egindako lanen jabetza

HARANA-KONTRASTAren jabetzapekoak izango dira jasotako zerbitzua eta egindako lanei dagozkien eskubideak, baita hauen jabetza industrial eta komertziala ere, HARANA-KONTRASTAren esku egonik horien erabilera, beste inork merkaturatu, berregin edo beste era batez erabiltzeko aukerarik izan gabe HARANA-KONTRASTA espresuki baimentzen ez badu, eta ondorioz, honek jabetzari dagozkion agiri edo materialak ematea eskatu ahal izango du, aurrekariak, datuak eta prozedura guztiak barne.

Jabetza intelektual edo industrialaz babestutako produktuak garatzea eta erabiltzeko moduan jartzea xede duten zerbitzu-kontratuek HARANA-KONTRASTAren esku utziko dute aipatutako jabetza intelektual edo industrialak.

Kontratua indargabetu ahal izango da, baldin eta egiaztatzen bada kontratistak kontratugaitzat jo daitekeen lana, osorik nahiz zatika, hirugarrenen esku utzi duela HARANA-KONTRASTAren baimenik gabe. Kontratua indargabetzeko kausa hau gertatzekotan, kontratistak kontratua bete gabe utzi duela ulertuko da ondorio guztietarako.

13.2 Izaera pertsonaleko datuen tratamendua.

Izaera pertsonaleko datuen tratamendutzat hauxe hartuko da: izaera automatizaturik ala ez diren eragiketa eta prozedura teknikoak, baldin eta horien bidez bilketa, grabaketa, kontserbazioa, prestaketa, aldaketa, blokeoa eta ezeztatzea egin ahal bada; baita datuen loturak ere, honako honen ondorioz: komunikazioak, kontsultak, interkonexioak eta transferentziak, betiere pertsona fisiko identifikatu edo identifikagarri lotutako edozein informaziorekin zerikusia izanik.

A) Zerbitzu-kontratu bat denean, eta enpresa kontratistaren (ondorio hauetarako “**Tratamenduaren Arduraduna**”) edo azpikontratistaren sarbidea eskatuz gero, HARANA-KONTRASTAren (ondorio hauetarako “**Arduraduna**”) jabetzako izaera pertsonaleko datuetara, I. ERANSKINEAN azaltzen den bezala, honako hau hartuko da kontuan:

1. Kontratuaren bitartez, Tratamenduaren Arduraduna gaitzen da, Arduradunaren bidez, Arduradunak kontratatutako zerbitzuak emateko behar diren izaera pertsonaleko datuak tratatzeko. Tratamendu hori era honetan egingo da, kasuan-kasuan:

- Tratamenduaren Arduradunaren lokaletan eta informazio-sistemekin.
- Arduradunaren lokaletan eta informazio-sistemekin.
- Arduradunaren sistemetara urrutiko sarbidez

Egin litezkeen tratamenduak:

Bilketa	Bai	Erregistroa	Bai
Egituraketa	Bai	Aldaketa	Bai
Kontserbazioa	Bai	Erauzketa	Bai
Kontsulta	Bai	Transmisio bidezko komunikazioa	Bai
Zabalkundea	Bai	Interkonexioa	Bai
Erkaketa	Bai	Mugaketa	Bai
Ezeztatzea	Bai	Deuseztatpena	Bai
Komunikazioa	Bai		

2. Kontratuaren xedea diren lanak edo zerbitzuak gauzatzeko, Arduradunak Tratamenduaren Arduradunaren eskura jar dezake jarraian azaltzen diren datuen kategoria hauek:

Datu identifikagarriak:

Izaera pertsonalen datuak	Bai	Eskuzko izenpea/digitalizatua	Bai
IFZ/IFK	Bai	Hatza (hatz-aztarna edo planar)	Bai
Izena eta abizenak	Bai	Izenpe elektronikoa	Bai
Helbidea	Bai	Gizarte alorreko datuak	Bai
Telefonoa	Bai	Datu akademikoak eta profesionalak	Bai
Gizarte Segurantzaren zenbakia	Bai	Enpleguaren xehetasunen datuak	Bai
Irudia/Ahotza	Bai	Merkataritza informazioaren datuak	Bai
Ondasunen eta zerbitzuen transakzioen datuak	Bai	Ekonomia. finantza eta aseguruaren datuak	Bai

Datuak tratatu daitezkeen talde interesdunen artean hauexek daude:

Langileak	Bai	Bezeroak eta erabiltzaileak	Bai
Hornitzaileak	Bai	Elkartuak edo kideak	Bai
Jabeak eta errentaria	Bai	Harremanetako pertsonak	Bai
Ikasleak	Bai	Legezko ordezkariak	Bai
Eskatzaileak	Bai	Onuradunak	Bai
Kargu publikoak	Bai		

3. Tratamenduaren Arduradunak eta bere langile guztiek betebeharrak izango dituzte:

1. Tratamenduaren xedea duten datu pertsonalak, edo sartzeko jasoko dituenak, aginduaren helburuari begira erabiltzea. Ezin izango du, inola ere, xede pertsonalei begira erabili datuak.
2. Datuak Arduradunaren jarraibideen arabera tratatzea.
3. Tratamenduaren Arduradunak uste badu jarraibideren batek Europar Batasunaren edo estatu kideen datuak babesteko araudiak edo legedia urratzen dituela, berehala informatuko dio horretaz Arduradunari.
4. Arduradunaren aldetik egingo dituen jarduera-kategoria guztien erregistroa izatea, honako hau edukiz gero:
 - Tratamenduaren Arduradunaren eta haren bidez aritzen den Arduradunaren izena eta harremanetarako datuak, eta kasuan-kasuan, Tratamenduaren Arduradunaren edo Arduradunaren ordezkarienak eta datuak babesteko delegatuarenak (DPD).
 - Arduradunaren aldetik egindako tratamenduen kategoriak.
 - Hala badagokio, hirugarren herrialde edo nazioarteko erakunde batera egindako datu pertsonalen transferentziak; hirugarren herrialde edo nazioarteko erakunde horien identifikazioa barne, eta kasuan-kasuan, RGPDen 49. artikuluan, 1. atala, bigarren paragrafoan, azaltzen den berme dokumentazio egokia.
 - Segurtasunaren neurri teknikoak eta antolaketakoen deskribapen orokorra, honako gai hauen inguruan:
 - Datu pertsonalen seudonimizazioa eta zifratua.

- Tratatzeke sistemen eta zerbitzuen etengabeko konfidentzialtasuna, integritatea, prestutasuna eta resiliencia bermatzeko gaitasuna.
- Datu pertsonaletara sartzeko eta erabiltzeko moduan egoteko gaitasuna era arinean, arazo fisiko edo teknikoren bat gertatuz gero.
- Tratamenduaren segurtasuna bermatzeko neurri teknikoaren eta antolaketakoen eraginkortasuna egiaztatzeke, ebaluatzeke eta balioesteko prozesua aldiro.

5. Ez jakinaraztea datuak hirugarren pertsonaren bati, salbu eta Arduradunaren baimena edukiz gero, legez onartutako kasuetan.

Tratamenduaren Arduradunak Arduradunaren beraren tratamenduaz arduratzen diren beste arduradun batzuei jakinarazi ahal izango dizkie datuak, Arduradunaren jarraibideak aintzat hartuta. Kasu honetan, Arduradunak, aldez aurretik eta idatziz, identifikatuko ditu datuak jakinaraziko dizkion erakundea, jakinarazteke datu zehatzak eta jakinarazpen hori egiteke ezarriko diren segurtasun neurriak.

Tratamenduaren Arduradunak datu pertsonalak hirugarren herrialde edo nazioarteko erakunde batera transferitu behar izanez gero, aplikagarria izan dakioken Europar Batasunaren edo estatu kideen zuzenbideari jarraituz, legezko eskakizun horren berri emango aurretiaz Arduradunari, salbu eta zuzenbide horrek debekatzen badu, interes publikoari lotutako pisuzko arazoengatik.

6. Azpikontratazioa:

- (i) Kontratua gauzatzea bere osotasunean edo zati batean azpikontratatzea debekatuta egonez gero:

Tratamenduaren Arduradunak datu pertsonalen tratamenduari lotutako kontratuaren xedearekin zerikusia duten inolako prestaziorik ez du azpikontratatu, salbu eta Tratamenduaren Arduradunaren zerbitzuen funtzionamendu normalerako behar diren zerbitzu osagarriak.

- (ii) Kontratua gauzatzea bere osotasunean edo zati batean azpikontratatzea baimenduta egonez gero:

Tratamenduaren Arduradunak egin nahi duen azpikontratazioa identifikatu du, **II. ERANSKINEAN** jasotzen den ereduaren arabera.

Hasieran, proposamenean identifikatu gabeko beste azpikontratista batzuk azpikontratatzeko, Tratamenduaren Arduradunak idatziz jakinarazi beharko dio Arduradunari, azpikontratista eta berarekiko harremanetarako datuak argi eta garbi identifikatuz.

Azpikontratistak, tratamenduaren arduradunaren kondizioaren jabea ere denak, dokumentu honetan Tratamenduaren Arduradunarentzat ezarritako betebeharrak edo eskakizunak eta Arduradunak emango dituen jarraibideak bete beharko ditu. Hasierako Tratamenduaren Arduradunari dagokio harreman berria arautzea, zeinaren bidez arduradun berriak hark dituen baldintza eta eskakizun formal berberak edukiko dituen, datu pertsonalak tratatzeko modu egokiari begira eta

eragin litezkeen pertsonen eskubideak bermatzeko xedez. Azpiarduradunak hori beteko ez balu, hasierako Tratamenduaren Arduradunak bere gain hartuko ditu edozein erantzukizun betebeharren betetzeari dagokionez.

7. Agindua edo enkargua dela eta, lortu ahal dituen datu pertsonalen inguruan sekretua gordetzeko eginbeharra izatea, baita haren xedea amaitu eta gero ere.
8. Espreski eta idatziz, datu pertsonalak tratatzeko pertsona baimenduek honako konpromiso hauek hartuko dituztela bermatzea: konfidentzialtasuna eta sekretua gordetzeko eginbeharra errespetatzeko, 13.3 klausulan ezartzen denari jarraikiz.
9. Aurreko atalean ezarritako betebeharra betetzen dela egiaztatzen duen dokumentazioa jartzea Arduradunaren eskura.
10. Datu pertsonalak tratatzeko pertsona baimenduek behar bezala jarduteko prestakuntza zuzena eta egokia bermatzea, betiere datu pertsonalak babesteko gaien inguruan.
11. Tratamenduaren Arduradunari laguntzea, honako eskubide hauek erabiltzeari edo egikaritzeari erantzunetan:
 - Sarbidea, zuzenketa, ezeztatzea eta aurkakotasuna.
 - Tratamenduaren mugaketa.
 - Datuen eramangarritasuna edo portabilitatea.
 - Erabaki indibidualizatu automatizatuak ez izatea (profilak prestatzea barne).
12. Eskubideen erabilera zaintzea. Eragindako pertsonak sartzeko, zuzentzeko, ezeztatzeko eta aurka egiteko, tratamenduaren mugaketa, datuen eramangarritasuna eta erabaki indibidualizatu automatizatuak ez izateko eskubideak erabiltzen dituztenean, Tratamenduaren Arduradunaren aurrean, azken honek posta elektronikoz jakinaraziko du dpd@eve.eus helbidera. Komunikazio edo jakinarazpen hori berehala egin beharko da, eta ez da inoiz luzatuko eskaera jasotzen den egunaren biharamunetik baino gehiago, eta behar izanez gero, eskaera era egokian bideratzeko beste informazio bat ere emango da.
13. Informazio eskubidea. Datuak biltzeko unean Arduradunari dagokio informazio eskubidea erraztea edo bermatzea, eta Tratamenduaren Arduraduna betebeharrorretatik salbuetsita egongo da.
14. Datu pertsonalen segurtasunaren edo segurtasun tartearen urraketez jakinarazpenak.

Tratamenduaren Arduradunak jakinaraziko dio Arduradunari, behar ez den luzapenik gabe, eta nolahi ere, 72 orduko gehieneko epean baino lehen, dpd@eve.eus posta elektronikoz, haren ardurapean eta ezagutzen dituen datu pertsonalen segurtasunaren inguruko edozein urraketa. Jakinarazpen horretan, izandako gorabeheraren edo urraketaaren dokumentazioa eta ezagutza egokia eta zabala izateko behar beste informazioa emango da. Jakinarazpena ez da beharrezkoa izango, baldin eta segurtasunaren urraketak arriskurik ekarriko ez balu, ustez, pertsona fisikoentzako eskubide eta askatasunei dagokienez.

Jakinarazi behar den informazioa, gutxienez, eta hura eskura edukiz gero, honako hau izango litzateke:

- Datu pertsonalen segurtasunaren urraketaren nondik norakoaren deskribapena; bertan, ahal dela, eragindako interesdunen kategoriak eta kopurua, gutxi gorabehera, azalduko dira, baita eragindako datu pertsonalen erregistroen kategoriak eta kopurua, gutxi gorabehera, ere.
- Datuak babesteko delegatuaren izena eta harremanetarako datuak, baldin bada, edo harremanetarako beste gune edo pertsona batenak, informazio gehiago lortu ahal izateko.
- Datu pertsonalen segurtasunaren urraketak ekar ditzakeen ondorioen deskribapena.
- Datu pertsonalen segurtasunaren urraketari aurre egiteko edo konpontzeko, hartu edo proposatzen diren erabaki eta neurrien deskribapena; bertan, ahal dela, ekar ditzakeen ondorio negatiboak arintzeko edo apaltzeko hartu diren neurriak jasoko dira.
- Informazioa aldi berean edo batera ematerik ez bada, eta halako kasuetan soil-soilik, informazioa era gradualean emango da eta behar ez den luzapenik gabe.

Tratamenduaren Arduradunak lagunduko dio Arduradunari, azken honek Kontrol Agintariari eta interesdunei gerta litezkeen segurtasunaren inguruko urraketarik gertatuz gero, eta jakinarazi behar baldin badizkie, Tratamenduaren Arduradunaren aldetik datuak tratatzeko jardunaren ondorioz.

15. Arduradunari laguntza ematea, datuak babestearen inguruko eraginen edo inpaktuen ebaluazioak egiteari begira, hala dagokionean.
16. Arduradunari laguntza ematea, kontrol agintariaren alde aurreko kontsultak egiteari begira, hala dagokionean.
17. Arduradunaren eskura jartzea behar den informazio guztia, betebeharrak era egokian betetzen direla egiaztatzeko, baita Arduradunak edo berak baimendutako beste auditor batek egingo dituen auditoriak edo ikuskapenak egiteko.
18. Tratamenduaren Arduradunak konpromisoa hartzen du behar diren neurri teknikoak eta antolaketakoak hartzeko, izaera pertsonaleko datuen segurtasuna bermatze aldera eta haien aldaketa, galera, tratamendua edo sarbide ez baimendua saihesteko. Horretarako, eta indarrean dagoen legeriarekin bat etorriz, konpromisoa hartzen du **III. ERANSKINEAN** azaltzen diren segurtasun neurriak hartzeko eta betetzeko. Hala ere, segurtasun neurri horiek alda daitezke kontratua sinatu ondoren, aplikagarria izan daitekeen unean uneko datuak babesteko araudietara egokitzeko. Horrelakorik gertatuz gero, aldeek dagokion gehigarria edo eranskina sinatuko lukete.

Nolanahi ere den, Tratamenduaren Arduradunak bideak jarri edo neurriak hartuko ditu, honako hau lortzeko:

- Tratatzekeo sistemen eta zerbitzuen etengabeko konfidentziasuna, integritatea, prestutasuna eta resiliencia bermatzea.
- Datu pertsonaletara sartzeko eta erabiltzeko moduan egotea era arinean, arazo fisiko edo teknikoren bat gertatuz gero.

- Tratamenduaren segurtasuna bermatzeko neurri teknikoen eta antolaketakoen eraginkortasuna egiaztatzea, ebaluatzea eta balioestea aldiro.
- Datu pertsonalen seudonimizazioa eta zifratua egitea, kasuan-kasuan.
- Hautatzea, aplikagarria den legeriak hala eskatzen duenean, datuak babesteko delegatu bat (DPD), eta haren izena eta harremanetarako datuak jakinaraztea Arduradunari.

4. Tratamenduaren Arduradunak, Arduradunak eskatzen dion neurrian, honako konpromiso hauek hartzen ditu:

- a. Izaera pertsonaleko datuak itzultzeko Arduradunari, eta hala badagokio, zerbitzua edo prestazioa eman ondoren, datu horiek izandako euskarriak edo soportea ere. Itzulketak ekarriko du, besteak beste, Tratamenduaren Arduradunak erabilitako ekipo informatikoetan dauden datuen erabateko ezabaketa.

Aurrekoa gorabehera, Tratamenduaren Arduradunak kopia bat gordetzeko aukera izango du, behar bezala blokeatutako datuekin, haren zerbitzua ematearen ondoriozko erantzukizunak erator daitezkeen bitartean.

- b. Arduradunak hautatu eta idatziz jakinarazitako tratamendu-arduradunari izaera pertsonaleko datuak emateko, eta hala badagokio, zerbitzua edo prestazioa eman ondoren, datu horiek izandako soportea ere. Itzulketak ekarriko du, besteak beste, Tratamenduaren Arduradunak erabilitako ekipo informatikoetan dauden datuen erabateko ezabaketa.

Aurrekoa gorabehera, Tratamenduaren Arduradunak kopia bat gordetzeko aukera izango du, behar bezala blokeatutako datuekin, haren zerbitzua ematearen ondoriozko erantzukizunak erator daitezkeen bitartean.

- c. Datuak deuseztatzeko, prestazioa burutu eta gero, Deuseztatu ondoren, Tratamenduaren Arduradunak egiaztatuko du deuseztapena idatziz. Honekin batera doa, **IV. ERANSKINEAN**, eredu gisa erabiltzeko, Arduradunari aurkeztu behar zaion deuseztatze ziurtagiria.

Aurrekoa gorabehera, Tratamenduaren Arduradunak kopia bat gordetzeko aukera izango du, behar bezala blokeatutako datuekin, haren zerbitzua ematearen ondoriozko erantzukizunak erator daitezkeen bitartean.

5. Tratamenduaren Arduradunak izaera pertsonaleko datuak babesteko indarrean dagoen legeria beteko ez balu, eta zehazki, tratamenduaren xedeak eta bideak zehazterakoan urratuko balu, tratamenduaren erantzuleztat joko litzateke, eta berak egindako arau-hausteen aurrean erantzun beharko luke. Kasu honetan, ohiko jurisdikzioak kalte-ordaina jasotzeko eskubidea onartzen baldin badio interesdunari, ondasunetan edo eskubideetan izandako kalte edo galeraren ondorioz, Tratamenduaren Arduradunari egokituko zaio kalte-ordain horren ordainketa.

6. Izaera pertsonaleko datuak babesteko indarrean dagoen legerian ezarritakoa betez, Arduradunak eta Tratamenduaren Arduradunak hauxe jakinarazten diete parte hartzaileei: Kontratuan azaltzen diren datu pertsonalak eta harremanetik eratorriko direnak aldeetako bakoitzak tratatuko dituela.

7. Kontratua behar bezala betetzea edo gauzatzea da datuak tratatzeko oinarria, datu horiek ematea beharrezkoa izanik, bestela, kontratuzko harremana kudeatzea ezinezkoa litzateke.
8. Harremanak irauten duten bitartean kontserbatuko dira datuak, eta ezabapena eskatzen ez den arte; betiere aplikagarria izan daitekeen preskripzioko legezko epeak betez.
9. Ez zaio hirugarrenen bati daturik lagako, legezko betebeharra izan ezik, eta datu horien nazioarteko transferentziak aurreikusten ez badira.
10. Interesdunek sarbide, zuzenketa, ezeztatzea, aurkakotasun, portabilitate eta mugaketa eskubideak erabil ditzakete. Horretarako, aldeetako bakoitzaren helbidera idazki bat bidali beharko dute.
11. Arduradunaren Datuak Babesteko Delegatuarekin harremanetan jartzeko aukera izango da posta elektronikoen helbide honetaz: dpd@eve.eus, eta kontratistaren Datuak Babesteko Delegatuarekin horretarako emango duen helbidean, baldin eta kontratistak horrelako pertsona izendatuta badu.
12. Era berean, interesdunek eskubidea izango dute Kontrol Agintari hauen aurrean erreklamazioa egiteko: Datuak Babesteko Euskal Bulegoa (AVPD gaztelaniaz) eta Agencia Española de Protección de Datos (AEPD).

B) Zerbitzu-kontratu bat denean, enpresa kontratistak edo azpikontratistak datu pertsonaletara sartzeko aukera ez badute ere, HARANA-KONTRASTAren bulegoetara, lokal eta/edo lonjetara fisikoki sartzeko beharra izanez gero, eta bertan datu pertsonalak tratatzen direnez gero, **I. ERANSKINEAN** adierazten den bezala, honako hau beteko da:

HARANA-KONTRASTAK eta kontratistak ezarri behar dituzte zer-nolako baldintzatan emango dituen zerbitzua kontratistak, izaera pertsonaleko datuak babesteko indarrean egongo den legeriaren arabera. Halaber, kontratistaren langileek zer-nolako konfidentzialtasun maila eduki behar duten ezarri beharra dute, kontratazio-organoaren instalazioetan egon behar izango dutenean, haren bulegoetara, lokal eta/edo lonjetara fisikoki sartzeari begira; bertan, kontratazio-organoak izaera pertsonaleko datuak izango baitu. Alde horretatik, hauxe beteko da:

1. Informazio konfidentzial mota guztietara sartzea debekatzen zaie kontratistaren langileei, eta zehazki, HARANA-KONTRASTAri dagozkion izaera pertsonaleko datuetara. Aurrekoa gorabehera, eta zerbitzua ematearen ondorioz, informazio konfidentzialen bat ezagutuz gero, informazio hori isilpean edo sekretuan gordetzeko konpromisoa hartuko dute, eta ez dute zabalduko, ezta argitaratuko ere, ez haiek zuzenean, ez hirugarren pertsona edo enpresa baten bitartez, ez eta hirugarren baten eskura jarri ere. Konfidentzialtasuna gordetzeko betebeharrak honek izaera mugagabea du, eta kontratuaren amaieran iraungo du, edozein kausa dela eta.

Kontratistak honako konpromiso hau hartzen du: haren kontura kontratatu eta haren kargura arituko diren langileei betearazteko kontratuan ezarritako betebeharrak. Nolanahi ere den, HARANA-KONTRASTAK bere bulegoetan jardungo duten Esleipendunaren langileei klausula informatibo bana emango die, kontratazio-organoaren aldetik datuen

tratamenduaren inguruan, eta bertan konfidentzialtasun konpromiso bat azalduko da, klausula honetan deskribatzen den terminoetan adierazita.

2. Kontratistak datuak jakinarazi edo haien berri emango balitu, edo kontratuan hitzartutakoa kontuan hartu gabe erabiliz gero, berak egingo dituen ekintzen erantzulea izango litzateke.

3. Izaera pertsonaleko datuak babesteko gaiaz indarrean dagoen araudia betez, HARANA-KONTRASTAK eta kontratistak honako honen berri emango die parte hartzaileei: Kontratuan agertuko diren datu pertsonalak eta harremanetik eratorriko direnak aldeetako bakoitzaren aldetik tratatuko direla.

4. Kontratua behar bezala betetzea edo gauzatzea da datuak tratatzeko oinarria, datu horiek ematea beharrezkoa izanik, bestela, kontratuzko harremana kudeatzea ezinezkoa litzateke.

5. Harremanak irauten duten bitartean kontserbatuko dira datuak, eta ezabapena eskatzen ez den arte; betiere aplikagarria izan daitekeen preskripzioko legezko epeak betez.

6. Ez zaio hirugarrenen bati daturik lagako, legezko betebeharra izan ezik, eta datu horien nazioarteko transferentziak aurreikusten ez badira.

7. Interesdunek sarbide, zuzenketa, ezeztatzea, aurkakotasun, portabilitate eta mugaketa eskubideak erabili ditzakete. Horretarako, aldeetako bakoitzaren helbidera idazki bat bidali beharko dute.

8. Arduradunaren Datuak Babesteko Delegatuarekin harremanetan jartzeko aukera izango da posta elektronikoen helbide honetaz: dpd@eve.eus, eta kontratistaren Datuak Babesteko Delegatuarekin horretarako emango duen helbidean, baldin eta kontratistak horrelako pertsona izendatuta badu.

9. Era berean, interesdunek eskubidea izango dute Kontrol Agintari hauen aurrean erreklamazioa egiteko: Datuak Babesteko Euskal Bulegoa (AVPD gaztelaniaz) eta Agencia Española de Protección de Datos (AEPD).

13.3 Konfidentzialtasuna

Informazio konfidentzialtzat joko da kontratistak eskuragarri izango duen informazio pertsonal, kontratuko, banketxe, tekniko edota komertzial oro, kontratatutako zerbitzua egiteko informazioa, hain zuzen ere.

Kontratistak konpromisoa hartzen du modu konfidentzialean erabiltzeko halakotzat jotzen den informazio oro, eta baldintza orokorretan eta dokumentu honetan azaltzen den xederako baino ez du erabiliko informazioa, hirugarrenei haren berri eman gabe eta jendaurrean edo beste era batean kaleratu gabe.

Kontratistak konpromisoa hartzen du konfidentzialtzat jotzen den informazioa ez zabaltzeko, eta horrela egin dezaten jakinaraziko die haren menpeko langileei, elkarteko kideei eta, oro har, harekin izan dezakeen harremana dela eta, informazio hori eskura izan dezakeen orori, HARANA-KONTRASTAekin hitzartutako betebeharrak zuzen betetzeko.

Horretaz gain, lanarekin zerikusia ez duten zuzendaritzako kideei eta langileei informazio konfidentzialik ez die helaraziko.

Aurreko paragrafoan aipatutako kontratistak edo pertsonak ezin izango dute HARANA-KONTRASTAk emandako informazioa zabaldu, aldatu edo beste bati eman, kontratua gauzatzeko informazioa den aldetik.

Aldez aurretik HARANA-KONTRASTAk baimena eman ezean, eman zaion edozein dokumentu ez du erreproduzitu ezta kopiatu ere kontratistak (informazio konfidentziala izan dezakeena), zerbitzua emateko ezinbestekoa denean izan ezik.

Kontratutako zerbitzuaren ezaugarriak kontuan izanik, hala badagokio, kontratistak dokumentuak eta kopiak itzuli egingo ditu, kontratuaren lanak amaitu eta gero, emango zaizkionak hala eskatzen badio.

Klausula honetan ezartzen diren betebeharrak gorabehera, alde bietan informazio konfidentziala eman ahalko diote hirugarrenen bati, baldin eta informazio hori erakunde judizial edo agintari eskumendun batek eskatzen badu. Era berean, informazio mota hori eman dezakete, baldin eta gobernuko agintari ikuskatzaileraren batek eskatuz gero, edo legeak informazio hori zabaltzeko agintzen badu; betiere, arrazoizkoa eta bidezkoa denean (eskakizun judizial batek edo agintari ikuskatzaile batek eskatzen duena ez betetzea saihestuz), eta beste aldeari alde aurretik jakinaraziz, gutxienez zazpi (7) egun lehenago.

Kontratistak isiltasun profesionala urratzeagatik sortutako kalte-galerengatik kalte-ordaina eman beharko die HARANA-KONTRASTAri, legeriaren arabera kontratistari egotzi ahal zaizkion erantzukizunez gain.

14. LAGAPENA ETA AZPIKONTRATAZIOA

- a) Kontratuaren lagapenerako legezko eskakizunei dagokionez, SPKLen zehaztutakoa bete beharko da. Dena dela ere, HARANA-KONTRASTAk alde aurretik eta berariaz baimendu beharko du kontratuaren lagapena. Kontratua ezin izango da laga, berau esleitzeko arrazoi erabakigarriak jatorrizko kontratistaren gaitasun pertsonal edo teknikoak izanez gero.
- b) Kontratistak kontratuaren lanen bat azpikontratatzeko asmorik badu, zehazki adieraziko HARANA-KONTRASTAri azpikontratatu nahi duen zatia, kontratuaren prezioaren aldean, zer ehuneko dagokion zati horri, azpikontratatuaren izena eta profil profesionala, gaitasun profesionala edo teknikoa kontuan hartuta, baita azpikontratua egikaritzeko baldintza teknikoak ere azaldu beharko dira.

Kontratistak azpikontrata egin nahi izanez gero, SPKLen zehazten diren xedapenak bete behar ditu. Nolanahi ere, azpikontratazioek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

- (i) Kontratistak alde aurretik jakinarazi behar dizkio HARANA-KONTRASTAri idatziz egin nahi dituen azpikontratu guztiak, azpikontratista bakoitzari lotutako kontratuaren aldea adieraziz.
- (ii) HARANA-KONTRASTAk alde aurretik onartu behar du.

Kontratatutak. kontratuari lotutako atal batzuk egiteari begira, hirugarrenen bat kontratatuz gero, kontratuaren gauzapearen ardura osoa hartuko du bere gain, kontratazio-organoaren aurrean, dokumentu honetan eta kontratuzko dokumentuetan aintzat hartuta, gizarte eta lan gaiei dagozkien betebeharrak barne.

Kontratatutak, pertsona azpikontratatuari edo hornitzaileari begira, justifikatu beharko ditu hitzartutako ordainketa baldintzak, SPKLen 216. artikulua ezartzen dituen mugak kontuan hartu behar dituena.

15. KONTRATUAREN ARDURADUNA

Kontratazio-organoak egin ditzakeen ohiko jarraipen eta gauzape lanak gorabehera, lanen berrikuspen eta ikusapena kontratuaren arduradunari dagokio. Hori guztia, SPKLen 62. artikulua ezartzen duenari jarraiki egingo da. Kontratuaren arduraduna aldatuz gero, idatziz eta berehala jakinaraziko zaio kontratatutari.

16. GAUZATZEKO BALDINTZA BEREZIAK

Gauzatzeke baldintza berezi hauek eta, kasuan-kasuan, baldintza berezietan ezar daitezkeenak, kontratatutak zein pertsona azpikontratatuak bete beharko dituzte.

16.1 Hizkuntzak

- Esleipendun ahaldunaren eta kontratatutaren arteko harremanetan, normalean euskara erabiliko da. Kontratua gauzatzeari begira, hauex da "normalean euskara erabiltzea":

a) Ahozko komunikazioetan, euskaraz dakien langileek euskaraz egingo dute, hasiera baten, kontratua gauzatzeke zereginak direla eta administrazio kontratu-egilearekin harremanetan jartzen direnean. Administrazio kontratu-egilea euskaraz zuzentzen ari den langile bati eta horrek hizkuntza behar bezala menperatzen ez badu, kontratua gauzatzeke ardura duen enpresak berehala jarri beharko ditu euskara behar bezain ondo dakiten langileak edo bitartekoak, kontratuaren ondorioz administrazioarekin burutu beharreko harremanak euskaraz izan daitezzen.

b) Komunikazio idatziak euskaraz eta gaztelaniaz egingo dira, salbu eta igorleak eta hartzaileak euskara hutsean egitea erabakitzen badute.

- Kontratuak herritarrei zerbitzuak ematea eskatzen duenean, edo hirugarrenekin edota pertsonekin, orokorrean, kontratua gauzatzeke ardura duen enpresaren eta zerbitzuaren erabiltzailearen arteko ahozko komunikazioetan eta komunikazio idatzietan erabiliko den hizkuntza erabiltzaileak edo hirugarrenak aukeratutakoa izango da, kasuan-kasuan.

Berariaz inolako aukerarik egiten ez bada, kontratua gauzatzeke ardura duen enpresak pertsona fisikoei eta juridikoei egiten dien era guztietako jakinarazpen eta komunikazioak hizkuntza ofizial bietan egingo dira, fakturak eta zirkulazioko bestelako agiriak barne. Hala ere, herritarrak edozein unetan erabil dezake hizkuntza aukeratzeke eskubidea eta, ondorioz, nahi duenean eskatu ahal izango du hizkuntza ofizialetako bakar bat erabiltzea.

Nolanahi ere, kontratatutak behar besteko giza baliabideak eta bitarteko materialak bideratu beharko ditu, zerbitzua emango zaion herritarrari begira, zabalduko duen informazioa eta komunikazio euskaraz egin ahal izateke edonoiz.

Legearen aplikazioaren ondorioz, edo dagokion hitzarmen kolektiboaren klausulen eraginez, esleipendun berriak subrogatu behar izanez gero, bertan behera utzitako kontratuan aritutako langileen aldean, eta langile horiek hizkuntza aldetik behar bezala gaituta egongo ez balira, kontratuzko klausuletan ezarritako betekizunak aurrera emateko, kontratista berriak egin beharko dituen subrogatutako langileen ordezkapenean kontuan hartuko du hizkuntza, eta, beraz, kasuan-kasuan, kontratuan eskatzen den langileen hizkuntzaren ezagutza eta erabilera aintzat hartuko da.

- Azterlanak, txostenak, proiektuak eta kontratu honi lotutako gainerako lanak EAEko hizkuntza ofizial bietan egingo dira. Horren barruan sartzen dira software guztien testuzko eta entzunezko interfazeak.

16. 2 Gizarte eta enpleguaren inguruko gaiak

- Lan, Gizarte Segurantza eta lan segurtasun eta osasunari lotutako gaien inguruan indarrean dauden legezko xedapenak eta konbentzionalak betetzea.

- 11. 2 klausulan ezarritakoa betetzea.

- Kontratuaren gauzape osoan zehar, aplikagarria den hitzarmen kolektiboan ezarritako soldata ordaintzea, langile bakoitzari dagokion kategoria profesionalaren arabera, eta inoiz ez da izango ordainduko den soldata hori hitzarmenarena baino txikiagoa.

- Kontratuaren gauzapeetik eratorriko diren datu guztiak erakunde-gardentasunez erabiltzea.

16. 3 Azpikontratutako pertsonen eta hornitzaileei ordainketen egiaztapena

- Kontratuaren arduradunari, azken honek hala eskatzen duenean, kontratuan parte hartzen duten azpikontratutako pertsonen eta hornitzaileen zerrenda helaraztea, haien parte hartzea perfektionatzen denean, haietako bakoitzaren azpikontratazio edo hornidura baldintzekin batera, ordainketa epearekin erlazio zuzena izanez gero.

- Kontratuaren arduradunari, azken honek hala eskatzen duenean, aurreko paragrafoan aipatu diren azpikontratutako pertsonen eta hornitzaileei egindako ordainketen egiaztapena, zerbitzua edo prestazioa eman ondoren eta legez ezarritako ordainketak egiteko epeen barruan, SPKLen 216. Artikuluaren eta abenduaren 29ko 3/2004 Legearen arabera, merkataritza jardueretan berankortasunaren aurkako erabakiak eta neurriak xedatzen dituenak.

16. 3 Generoaren berdintasunaren aldeko gaiak

Enpresa esleipendunak alor honetan bete beharko du, besteak beste, otsailaren 18ko Gizonen eta Emakumeen Berdintasunaz diharduen 4/2005 Legeak (2005eko martxoaren 2ko EHAA) xedatzen dituen ebazpenak eta eskakizunak, administratiboki laguntza jaso, harekin kontratuak egin edo lankidetzan aritzen diren erakundeei dagokienez:

- Honako printzipio hauek betetzeko konpromisoa: tratu berdina, aukera berdintasuna, dibertsitatea eta ezberdintasuna errespetatzea langile guztien artean (3. artikulua).
- Haien jardunetan genero-ikuspegi integratzeko, ekintza positiboa bultzatzeko, sexuaren araberako rola eta estereotipoak desagerrarazteko konpromisoa (3. artikulua).

- Zuzendaritza-organoetako eta organo kolegiatuetako kide izateko pertsonak izendatzerakoan, izendatutakoaren artean trebakuntza, gaitasun eta prestakuntza egokia duten emakumeen eta gizonen ordezkariak orekatua izateko konpromisoa (23. artikulua).
- Estatistika eta azterlanak prestatzerakoan, genero-ikuspegia kontuan hartzeko konpromisoa, sexuaren arabera datuak bildu eta aurkeztuz (16. artikulua).
- Sortzen dituzten dokumentu eta euskarrietan hizkera eta irudi sexista ez erabiltzeko konpromisoa (18.4 artikulua).

17. KALITATE KONTROLA ETA KANPO IKUSKAPENAK

Bere kalitate-sistemaren babesean, kontratistak lanaren edo horniduraren kalitatea bermatzeko aplikagarriak diren ikuskapen edota arauzko kontrolak egin beharko ditu. Lanaren irismena edo izaera dela eta, ekipoak edo materialak legezko betekizunen mende daudenean (presiozko ontziak, material elektrikoak, errekuntza ekipoak eta bar), HARANA-KONTRASTAk eskubidea izango du, haren bitartekoez edo kanpoko baten bidez, ikuskapen horien emaitzak aztertzeko, eta horien txostenak kontratuzko dokumentazioaren eta behin betiko onarpenaren parte izango dira.

Nolanahi ere, Ikuskapen horiek egitekotan, ez dute kontratistak eskari/kontratuan edo legezko eskakizunetan ezarritako baldintzak betetzeko duen erantzukizuna salbuetsiko edo gutxituko.

18. HORNIDURA KIMIKOAK

Horniduraren irismenaren barruan, produktu kimikoren bat erosi, eskuztatu edo erabili behar izatea aurreikusten baldin bada, produktu horiek guztiak behar bezala identifikatu dira, REACH araudia (EC 1907/2006 Zuzentaraua) beteko dute, CAS/EU identifikazio zenbakiak eta dagozkien segurtasun orriak edukiko dituzte.

Ez da onartuko produktu kimikoren baten inolako entrega, erabilera edo eskuztatzerik, aurreko paragrafoetan adierazitakoa betetzen ez bada.

19. OBRAK BEHIN BETIKO JASOTZEA

Obra-kontratuaren, obra behin-behineko jasotzeko izapideak abian jarriko dira esleipendunak kontratuaren arduradunari, HARANA-KONTRASTAk hautatutakoari, honako hau jakinarazten dionean:

- i- Obra baldintza berezien zehaztapen teknikoaren txostenean eta kontratistaren eskaintzan adierazitakoaren arabera amaitu dela.
- ii- Akatsik aurkituz gero, den-denak konponduta daudela.
- iii- Indarrean dagoen legeriak eskatzen duen dokumentazio guztia prestatuta dagoela.
- iv- Behin-behineko instalazioak kendu direla eta lekua behar bezala garbitu dela.

Hamabost (15) eguneko epea igaro baino lehen, kontratuaren arduradunak obra aztertuko du eta egiaztatuko du obrak arau edo baldintza teknikoetan azaldutako klausuletan esaten dena betetzen dituela; baita baldintza berezietan, eskaintzan eta eskari/kontratuan jasotzen dena ere.

Ikuskapena edo azterketa positiboa bada, kontratuaren arduradunak obra behin betiko jasotzeko akta egingo du, ale bitan, eta HARANA-KONTRASTAri eta kontratistari bidaliko die kopia bana. Onarpen horrek izaera loteslea izango du berme-aldiak hasteko.

Kontratuan azaltzen diren lanetan kontratuaren arduradunak akatsik aurkituz gero, ordea, kontratistari jakinaraziko dio eta honek hamar (10) eguneko epean, gehienez ere, konpondu beharko lituzke akatsak.

Goraxeago adierazi den epean kontratistak aipatutako akatsak konponduko balitu, kontratuaren arduradunak obra behin betiko jasotzeko akta egingo luke, ale bitan, eta HARANA-KONTRASTAri eta kontratistari edo esleipendunari bidaliko die kopia bana. Onarpen horrek izaera loteslea izango du berme-aldiak hasteko.

Prestazio akatsdunei lotutako arazoak adierazitako epean konpondu ezean, HARANA-KONTRASTAK bertan behera utz dezake kontratua eta kalte-ordainengatik eskabidea egin dezake. Kontratistak ordura arte jasotako kopurua eta %20 gehiago izango da kalte-ordainaren zenbatekoa.

20. MATERIALA ETA EKIPOAK EMATEA

Erosi edo kontratatuko diren material eta ekipoa guztiak behar bezala garraiatu eta emango dira, eta haien ezaugarrien arabera babestu eta paketatuko dira. Kontratuzko dokumentazioan jasotzen ez bada, HARANA-KONTRASTAK ez du onartuko inolako kostu gehigarririk garraio, aseguru edo babesteko paketatzeari loturik.

21. CE MARKA

Kontratua dela eta, hornitutako material eta ekipo guztiek CE marka izango dute; Europako Ekonomia Erkidegoan zirkulazio askeko salgai diren aldetik.

Erkidegoz kanpoko material eta ekipo inportatuak CEren onarpen eta adostasun ziurtagiriekin entregatuko dira.

22. EZINBESTEKO KASUA

Kontratuko betebeharrak ez betetzeagatik ezingo da HARANA-KONTRASTA ezta kontratista ere erantzuletzat hartu, ez betetze hori ezinbesteko kasuaren egoerak eragin badu.

Ezinbesteko kasutzat hartuko dira hauetatik eratorritakoak, baina horietara mugatuta ez daudenak: gertaera naturalak, gerrak, sutea, leherketa, matxinadak, gobernuek edo agentziek eragindako ekintzak edo antzeko izaera duen beste edozein kausa, aldeak ekidinezinak direnean, haien kontroletik kanpo daudelako.

Ez dira espresuki ezinbesteko kasutzat hartuko esleipendunaren eta baimendutako azpikontratisten langileek dituzten laneko gatazketatik eratorritako jardueraren lanuzteak.

Kontratuko betebeharrak ez betetzeko ezinbesteko kasua argudiatzen den kasu guztietan, horiek idatziz jakinarazi beharko ditu kontratistak gertaera jazotzen den unetik, gehienez, 72 orduko epean.

23. KONTRATUAREN OSOTASUNA

Kontratuaren klausularen bat, edo pertsonaren lanaren bat, horren aplikazioaren ondorioz, baliogabetzat edo eraginkortasun gabekotzat hartuko balitz, baliogabetasun hori klausula edo pertsona horri baino ez lioke eragingo, eta, beraz, kontratuaren gainerako atalak normaltasunez gauzatuko lirateke.

24. KONTRATUAREN IRAUNGIPENA/DEUSEZTAPENA

SPKLen 211. eta 313. artikuluetan ezarritakoez gain, eta, kasuan-kasuan, baldintza berezietan zehazten direnak izango dira. Baita honako arrazoi hauek ere:

- a) SPKLen 190. artikulua bigarren paragrafoan xedatzen denarekin bat etorriz, esleipen ahalmenaren zuzentze eta ikustatze eskubideei oztopoak jartzea.
- b) Kontratatik konfidentzialtasuna gordetzeko duen betebeharra ez betetzea.
- c) Zigorren aplikazioa, banaka edo orotara, kontratuaren prezioaren %20 izatea.
- d) PCAPen eta PPTPen azaltzen diren kontratuzko gainerako funtsezko betebeharrak ez betetzea.

Ezarritako baldintzen arabera arrazoi hauetako edozein gertatuz gero, kontratazio organoa baimenduta egongo da kontratua indargabekotzat jotzeko, eta kontratu honen eta indarreko araudiaren arabera dagokion kalte-galeren ordaina eskatu ahal izango du, betearazpen subsidiarioaz baliatzeko aukera barne, egin gabe geratu diren betebeharrak gauzatu edota lanak gauzatu jarraituz, berez edo egokituz jotzen dituen pertsona edo enpresen bitartez, kontratistaren kontura.

25. JURISDIKZIO ESKUDUNA

Jurisdikzio Zibileko Epaitegiak izango dira kontratuak betetzean eta amaitzean sor daitezkeen auziak erabakitze eskudunak, salbu eta SPKLen 27.1. artikulua b) eta c) letretan adierazten diren kontratuzko aldaketak. Hala, kontratazio organoa eta kontratista borondatez jartzen dira Bilboko epaitegi eta auzitegien mendean. Era berean, berariaz egiten diete uko erabilgarri izan ditzaketan bestelako foroei.

I. ERANSKINA

Izaera pertsonaleko datuetara sarbidea duten zerbitzu-kontratuen zerrenda

Art. kodea	Deskribapena	Kodea CPV	Deskribapena CPV	Datuetara sarbidea
ITM0001	Inprimagailu/Fotokopiagailuen alokairua	30000000-9	Makinak, bulegoko eta informatikako ekipo eta materialak; altzariak eta softwareko paketeak izan ezik.	EZ
ITM0002	Altzarien alokairua	70000000-1	Altzari zerbitzuak	EZ
ITM0003	Ibilgailuen alokairua	34000000-7	Garraio ekipoak eta produktu osagarriak	EZ
ITM0004	Beste alokairu batzuk	70000000-1	Altzari zerbitzuak	EZ
ITM0014	Prentsa aldizkaria	22000000-0	Inprimakiak eta lotutako produktuak	EZ
ITM0015	Harpidetzak	22000000-0	Inprimakiak eta lotutako produktuak	EZ
ITM0018	Gas erosketaren eskubideak	09000000-3	Petrolioaren deribatuak, erregaiak, elektrizitatea eta beste energia iturri batzuk	EZ
ITM0019	Bidaia zerbitzuak	63000000-9	Garraio zerbitzu osagarriak eta gehigarriak; bidai agentzien zerbitzuak	BAI
ITM0022	Garbiketak	90000000-7	Estolda, zabor, garbiketa eta ingurumen zerbitzuak	EZ
ITM0026	Hartutako prestakuntza	80000000-4	Irakaskuntza eta prestakuntza zerbitzuak	BAI
ITM0027	Prestakuntza ITUNA	80000000-4	Irakaskuntza eta prestakuntza zerbitzuak	BAI
ITM0028	As-Kalte material arrisku orotara	66000000-0	Finantza eta aseguru zerbitzuak	EZ
ITM0029	Erantzukizun zibilaren aseguruak	66000000-0	Finantza eta aseguru zerbitzuak	EZ
ITM0030	Ibilgailuen aseguruak	66000000-0	Finantza eta aseguru zerbitzuak	EZ
ITM0031	Bizi eta istripuen aseguruak	66000000-0	Finantza eta aseguru zerbitzuak	BAI
ITM0032	Ontzien aseguruak	66000000-0	Finantza eta aseguru zerbitzuak	EZ
ITM0033	Beste aseguru batzuk	66000000-0	Finantza eta aseguru zerbitzuak	BAI
ITM0035	Kontratatu kanpoko pertsonala	79000000-4	Enpresei zerbitzuak: legeria, merkadoteknia, aholkularitza, pertsonal hautaketa, inprenta eta segurtasuna	BAI
ITM0036	Posta eta Telegrafoak	64000000-6	Posta eta telekomunikazio zerbitzuak	BAI
ITM0037	Mezularitza	64000000-6	Posta eta telekomunikazio zerbitzuak	BAI
ITM0038	Itzulpenak	79000000-4	Enpresei zerbitzuak: legeria, merkadoteknia, aholkularitza, pertsonal hautaketa, inprenta eta segurtasuna	BAI
ITM0039	Garbiketa zerbitzuak	90000000-7	Estolda, zabor, garbiketa eta ingurumen zerbitzuak	EZ
ITM0041	Garr. zerbitzua; karga, deskarga	60000000-8	Garraio zerbitzuak (hondakinen garraioa izan ezik)	BAI
ITM0042	Publizitate kanpainak	79000000-4	Enpresei zerbitzuak: legeria, merkadoteknia, aholkularitza, pertsonal hautaketa, inprenta eta segurtasuna	BAI
ITM0043	Ikus-entzunezko materiala	79000000-4	Enpresei zerbitzuak: legeria, merkadoteknia, aholkularitza, pertsonal hautaketa, inprenta eta segurtasuna	BAI
ITM0044	Azokak eta erakusketak	79000000-4	Enpresei zerbitzuak: legeria, merkadoteknia, aholkularitza, pertsonal hautaketa, inprenta eta segurtasuna	BAI
ITM0045	Jardunaldiak	80000000-4	Irakaskuntza eta prestakuntza zerbitzuak	BAI
ITM0046	Prentsan iragarkiak	79000000-4	Enpresei zerbitzuak: legeria, merkadoteknia, aholkularitza, pertsonal hautaketa, inprenta eta segurtasuna	BAI
ITM0048	Beste publizitate bat	22000000-0	Inprimakiak eta lotutako produktuak	EZ
ITM0050	Catering-a	55000000-0	Ostalaritza eta errestauraziori lotutako merkataritza zerbitzuak txikizkakoak	EZ
ITM0051	Antolatutako kongresuak	80000000-4	Irakaskuntza eta prestakuntza zerbitzuak	BAI
ITM0054	Mantentze prebentiboa	50000000-5	Konpontze eta mantentze zerbitzuak	EZ
ITM0055	Mantentze zuzentzailea	50000000-5	Konpontze eta mantentze zerbitzuak	EZ

ITM0065	Enpresaren balorazioak	66000000-0	Finantza eta aseguru zerbitzuak	BAI
ITM0066	Lege aholkularitza	79000000-4	Enpresei zerbitzuak: legeria, merkadoteknia, aholkularitza, pertsonal hautaketa, inprenta eta segurtasuna	BAI
ITM0067	Auditoria kontabilitatea	66000000-0	Finantza eta aseguru zerbitzuak	EZ
ITM0068	Auditoria Kalitatea	79000000-4	Enpresei zerbitzuak: legeria, merkadoteknia, aholkularitza, pertsonal hautaketa, inprenta eta segurtasuna	BAI
ITM0069	Notarioa	79000000-4	Enpresei zerbitzuak: legeria, merkadoteknia, aholkularitza, pertsonal hautaketa, inprenta eta segurtasuna	EZ
ITM0071	Merkatuaren ordezkariak	79000000-4	Enpresei zerbitzuak: legeria, merkadoteknia, aholkularitza, pertsonal hautaketa, inprenta eta segurtasuna	EZ
ITM0072	PRL zerbitzuak	79000000-4	Enpresei zerbitzuak: legeria, merkadoteknia, aholkularitza, pertsonal hautaketa, inprenta eta segurtasuna	BAI
ITM0073	Makinen alokairua. Zulaketa	31000000-6	Makinak, tresnak, gailuak eta produktu elektriko kontsumigarriak; argiztapena	EZ
ITM0074	Antolakuntza prestakuntza	80000000-4	Irakaskuntza eta prestakuntza zerbitzuak	BAI
ITM0075	Ingeniaritza	71000000-8	Arkitektura, eraikuntza, ingeniariak eta ikuskeren zerbitzuak	EZ
ITM0076	Azterlanak eta azterketak	71000000-8	Arkitektura, eraikuntza, ingeniariak eta ikuskeren zerbitzuak	BAI
ITM0077	Ek.-fin. eta zerga aholkularitza	66000000-0	Finantza eta aseguru zerbitzuak	BAI
ITM0078	Izapidetze administratiboak	75000000-6	Administrazio publiko, defentsa eta gizarte segurantzaren zerbitzuak	BAI
ITM0079	Auditoria teknikoak	71000000-8	Arkitektura, eraikuntza, ingeniariak eta ikuskeren zerbitzuak	EZ
ITM0080	Ikuskerenak	71000000-8	Arkitektura, eraikuntza, ingeniariak eta ikuskeren zerbitzuak	BAI
ITM0082	Informatika aholkularitza	72000000-5	TI zerbitzuak: aholkularitza, software garapena, Internet eta laguntza	BAI
ITM0083	Teknika aholkularitza	71000000-8	Arkitektura, eraikuntza, ingeniariak eta ikuskeren zerbitzuak	BAI
ITM0084	Kudeaketa aholkularitza	79000000-4	Enpresei zerbitzuak: legeria, merkadoteknia, aholkularitza, pertsonal hautaketa, inprenta eta segurtasuna	BAI
ITM0085	Beste aholkularitza/zerbitzu batzuk	71000000-8	Arkitektura, eraikuntza, ingeniariak eta ikuskeren zerbitzuak	BAI
ITM0086	Lan topografikoak	71000000-8	Arkitektura, eraikuntza, ingeniariak eta ikuskeren zerbitzuak	EZ
ITM0087	Ingeniaritza zerbitzuak (SHE)	71000000-8	Arkitektura, eraikuntza, ingeniariak eta ikuskeren zerbitzuak	EZ
ITM0088	Obra zuzendaritza (fakult.)	71000000-8	Arkitektura, eraikuntza, ingeniariak eta ikuskeren zerbitzuak	EZ
ITM0089	Ingurumen aholkularitza (SHE)	79000000-4	Enpresei zerbitzuak: legeria, merkadoteknia, aholkularitza, pertsonal hautaketa, inprenta eta segurtasuna	EZ
ITM0090	aholkularitza/Konsult. PRL (SHE)	79000000-4	Enpresei zerbitzuak: legeria, merkadoteknia, aholkularitza, pertsonal hautaketa, inprenta eta segurtasuna	BAI
ITM0092	Energia Eraginkortasun Ziurtagiria	71000000-8	Arkitektura, eraikuntza, ingeniariak eta ikuskeren zerbitzuak	EZ
ITM0093	Ur tratamendua (BER)	90000000-7	Estolda, zabor, garbiketa eta ingurumen zerbitzuak	EZ
ITM0096	Segurtasun zerbitzuak	79000000-4	Enpresei zerbitzuak: legeria, merkadoteknia, aholkularitza, pertsonal hautaketa, inprenta eta segurtasuna	BAI
ITM0097	Sismika	76000000-3	Gas eta petrolioaren industriari lotuta zerbitzuak	EZ
ITM0102	Osasun zaintza	85000000-9	Osasun eta gizarte laguntza zerbitzuak	BAI
ITM0103	Teleneurketa zerbitzuak	64000000-6	Posta eta telekomunikazio zerbitzuak	EZ
ITM0107	Beste zerbitzu orokor batzuk	98000000-3	Beste zerbitzu komunitario, sozial edo pertsonal batzuk	BAI
ITM0108	Zaintza zerbitzuak	79000000-4	Enpresei zerbitzuak: legeria, merkadoteknia, aholkularitza, pertsonal hautaketa, inprenta eta segurtasuna	BAI

II. ERANSKINA

Izaera pertsonaleko datuak tratatzeari begirako azpikontratazio eskaera

XXXXn, 21XXXXko XXXXaren (e)an

[Esleipendunaren legezko ordezkaria] jn./and., adinez nagusia, [...] NAN zenbakiduna, [enpresa Esleipendunaren izena]ren izenean eta ordezkaritza arituz, [...] IFZ duena, ahalordetze-eskirituran ageri denez, [...]ko Elkargoko [...] notario jn./and.aren aurrean izenpetua, [...] protokolo zenbakiduna, eta [...] egunean, (aurrerantzean, **Tratamenduaren Arduraduna**).

AZALTZEN DU

LEHENA.- [Kontratu sinatu zen data](e)ko datarekin, [adierazi kontratazio-organoaren izena](e)k (aurrerantzean, **Bezeroa**) eta Tratamenduaren Arduradunak zerbitzuak emateko kontratu bat sinatu zutela, honako honetan datzana: [deskribatu kontratuaren xedea]; zerbitzu horiek emateak eskatzen du Bezeroaren ardurapeko datu pertsonalen tratamendua, Tratamenduaren Arduradunaren aldetik.

BIGARRENA.- Esleipendunak emango duen zerbitzuaren garapenean zehar beharrezkoa izango dela emango den zerbitzuaren zatiren bat azpikontratatzea, honako arrazoi hauengatik: [zehaztu, jarraian, zeintzuk diren arrazoiak zerbitzuaren prestatzaileak bere zerbitzuak azpikontratatu beharraz].

HIRUGARRENA.- Azpikontratista bat datorrela [identifikatu azpikontratista: izena, helbidea eta IFZ] eta Tratamenduaren Arduradunaren kontsiderazioa izango duela, indarrean dagoen izaera pertsonaleko datuen inguruko legerian xedatutakoaren arabera.

LAUGARRENA.- Izaera pertsonaleko datuen tratamendua azpikontratatistaren aldetik, kontratazio-organoak Esleipendunari emango dizkion agindu edo jarraibideen mende egongo dela.

BOSGARRENA.- Esleipendunak datuak tratatzeko kontratu bat duela, azpikontratatistarekin sinatutakoa, indarrean dagoen izaera pertsonaleko datuen inguruko legerian xedatutakoaren arabera.

Aipatutako guztiagatik, **ESKATZEN DU** eskaera hau onartua izan dadin, Erosketa eta Kontratazioaren Baldintza Orokorretako 13.3 klausulan azaltzen dena betetzeko xedez.

(Sinadura)

III. ERANSKINA

Izaera pertsonaleko datuak tratatzeari begirako segurtasun neurriak

Jarraian, Esleipendunak edo Tratamenduaren Arduradunak aurrera eramateko konpromisoa hartzen dituen segurtasun neurriak azaltzen edo identifikatzen dira, 13.2 klausulan deskribatzen diren datuen tratamenduaren ezarpenari dagokionez:

- Pertsonala. Erabiltzaile guztien edo erabiltzaileen profilen zereginak eta betebeharrak definitzea. Pertsonalari jakinaraztea dagozkion eta eragiten dizkien arauak, datuen tratamenduz eta ez betetzeak dakarren ondorioez.
- Sartzeko kontrola. Erabiltzaile bakoitzaren (barnekoa edo kanpoko) sarbide baimenduak kontrolatzea, esleitutako zereginen arabera. Baimenduz kanpoko eskubide ezberdinak dituzten datuetara edo baliabideetara sartzeari begira, saihesteko mekanismoak ezartzea.
- Euskarrien kudeaketa. Euskarrien kudeaketa egiteko sistemaren bat edukitzea, horiek daukaten informazio mota identifikatzea ahalbidetuko duena, erabiltzaile baimenduak. Horretaz gain, ezarritako neurriak ere azalduko dira; betiere, neurri horiek informazioa ez aldatzea eta ez galtzeari zuzenduak izango dira; era berean, baimenduta egongo ez diren sarrerak ekidingo dira, bai Tratamenduaren Arduradunaren instalazioetan erabileran bai garraioan nahiz horien erabileratik kanpo eta bai horiek desegiteko prozesuan.
- Kontrolak eta auditoriak. Ezartzen diren segurtasun neurrien inguruan ikuskapenak eta auditoriak egitea aldi-aldi, behar bezala funtzionatzen dutela egiaztatzeko.
- Identifikazioa eta baimentzea. Erabiltzaileak, argi eta garbi eta modu pertsonalizatuan, Identifikatu eta baimentzeko mekanismoak ezartzea. Pasahitzak emateko, banatzeko, biltzeko prozedura eratzea, konfidentziasuna eta integritatea bermatzeari begira. Pasahitzak era ulertezinean bilduko dira. Pasahitzak aldatuko dira sei hilabeteko gutxienezko maiztasunarekin. Informazio sistema ez baimenduetara sarbidea saihesteri begira, behin eta berriro saiatzeko aukera mugatzen duten mekanismoak ezartzea.
- Laguntza kopiak. Laguntza kopiak egiteko eta datuak berreskuratzeko prozedurak eratzea, horiek berriz eskuratzea edo berregitea edoniz ahalbidetu dutenak. Segurtasun kopiak eguneroko maiztasunarekin egin beharko dira. Segurtasun kopien prozeduraren egokitasuna egunero egiaztatuko da. Aldian-aldian egiaztatzeko erreparazioak sartuko dira, gertakizun edo arazoren bat gertatuz gero, datuen eskuragarritasuna balioztatzeko xedez.
- Sarbide fisikoa. Informazio sistemen euskarriak izango diren ekipoen kokalekura sarrera mugatu eta kontrolatzeko prozeduraren bat edukitzea.
- Dokumentazioaren kudeaketa paperan. Paperezko dokumentazioa artxibatze prozeduraren bat ezartzea, kontserbazioa, kontsulta eta lokalizazioa errazteko eta interesdunek eskubideak baliatu ahal izateko bermea izan dezaten. Paperezko dokumentazio guztia giltzapean edukitzea eta irizpideak ezartzea zaintzeko edo gordetzeko kontsulta fasean

Kontratuan izaera pertsonaleko datuen inguruan, datu berezien kategorien kontsiderazioa identifikatuz gero, Tratamenduaren Arduradunak konpromisoa hartzen du, era osagarrian, honako segurtasun neurri hauek hartzeko:

- Informazioa gailu eramangarrietan zifratzeko instalazioetatik kanpo, Haien zifratua egitea ahalbidetzen ez duten Debeekatuta dago gailu eramangarriak erabiltzea debeekatuta dago.

- Tratamendu automatizatura edo logera sartzeko erregistroa eramateko; bertan hauxe azalduko da: erabiltzailea, ordua, zer-nolako informazioa eskuratu den, sarbide mota, baimendua edo ukatua. Sartzeko erregistroaren errebisioa kontuan hartuko da egingo diren aldian aldiko kontroletan.
- Euskarrien kudeaketa. Euskarrien sarrera eta irteera erregistratzeko prozeduraren bat edukitzeko, honako hau ezagutu ahal izateko: bidalitako eta jasotako datak, euskarrian dagoen informazioa, erabiltzaile arduraduna, jasotzailea eta eramateko edo jakinarazteko erabiltzen diren neurriak.
- Telekomunikazioak. Bidaltzen den informazioa zifratzeko, sare publikoen edo haririk gabekoen bitartez.
- Dokumentazioaren kudeaketa paperan. Paperezko dokumentuetara sarbideak identifikatzea ahalbidetzen duten mekanismoren bat ezartzeko, sarbide horiek erabiltzaile ugarik baliatzen badute. Irizpideak edo bideak ezarri honako hau egiteko: kopiak, erreproduktzioak edo dokumentuen lekualdaketak, baimendu gabeko sarbideak saihesteari begira.

IV. ERANSKINA

Izaera pertsonaleko datuak tratatzeari begirako deuseztatze ziurtagiria

XXXXn, 21XXXXko XXXXaren (e)an

[*Esleipendunaren legezko ordezkaria*] jn./and., adinez nagusia, [...] NAN zenbakiduna, [*enpresa Esleipendunaren izena*]ren izenean eta ordezkaritza arituz, [...] IFZ duena, ahalordetze-eskirituran ageri denez, [...]ko Elkargoko [...] notario jn./and.aren aurrean izenpetua, [...] protokolo zenbakiduna, eta [...] egunean, (aurrerantzean, **Tratamenduaren Arduraduna**).

AZALTZEN DU

LEHENA.- [*Kontratua sinatu zen data*](e)ko datarekin, [adierazi kontratazio-organoaren izena](e)k (aurrerantzean, **Bezeroa**) eta Tratamenduaren Arduradunak zerbitzuak emateko kontratu bat sinatu zutela, honako honetan datzana: [*deskribatu kontratuaren xedea*]; zerbitzu horiek emateak eskatzen du Bezeroaren ardurapeko datu pertsonalen tratamendua, Tratamenduaren Arduradunaren aldetik.

BIGARRENA.- Gorago aipatutako kontratuaren [...] klausulan, adieraten dela Tratamenduaren Arduradunaren betebeharra informazioaren deuseztatzen ziurtatzeari begira, kontratatutako zerbitzua amaitu edo eman ondoren.

HIRUGARRENA.- [...]ko datarekin, dokumentu honetako lehen atalean azaltzen den kontratuaren indarraldia bukatutzat eman dutela aldeek, eta beraz, Tratamenduaren Arduradunaren zeregina, hau da, datuak tratatzea amaitzen da, zerbitzuak ematearen bukaerarekin batera. Ondorioz, azken honek deuseztatze ziurtagiria egiteari ekin dio.

Aurreko horregatik guztiagatik,

ZIURTATZEN DU

LEHENA.- Deuseztatzea burutu duela, Bezeroak emandako jarraibideen arabera, zerbitzua ematearen inguruan tratamenduari lotutako datu pertsonal guztiei dagokienez, baita haren kabuz jaso edo sortutakoak eta horiei lotuta sor zitezkeen kopiak ere, bai euskarri automatizatuan bai formatu ez automatizatuan ere.

BIGARRENA.- Deuseztatzeari begira hartutako prozedurak datuak berreskuratzea ezinezkoa dela bermatzen duela, eta beraz, baimenik gabeko sarbide izatea datu horietara.

HIRUGARRENA.- Tratamenduaren Arduradunak duen betebeharra bideratu ahal izateko, aplikagarria zaion nazio araudiak, eta kasuan-kasuan, Europar Batasunarenak, eskatutako datuen kontserbazioari dagokionez, behar-beharrezkoak baino ez diren datu pertsonalak baino ez dituela kontserbatuko, tratamendu horretatik erator daitezkeen erantzukizunei aurre egiteko, edo zerbitzu horiek ematek eragindakoak; betiere bermatuz denbora tarte horretan ez direla eskuragarri izango, eta kontserbazio epealdia igaro ondoren, erabateko deuseztatzeari ekingo zaiola, haien berreskuratzea ezinezkoa egingo duen prozedura baten bidez bermatua.

Hori guztia ziurtatzen du, Tratamenduaren Arduradun den aldetik, eta sinatzen du dagokion ondorioetarako.

(Sinadura)